



BIDELAGUNTZA INTEGRALERAKO METODOLOGIA

CARITAS BIZKAIA

www.caritasbi.org



Bilbo, 2022

Caritas Bizkaia

Erribera, 8 behea. Bilbo
caritasbi@caritasbi.org
www.caritasbi.org

Diseinua: Erreka Multimedia S. Coop.

Creative Commons Lizentzia
CC BY-NC-SA 4.0





“Pertsonak gara, Jaungoikoaren seme-alabak, eta, hori dela eta, guztiok dugu duintasun berbera. Gure ekintzaren erdigunea pertsonak dira -pertsona bakoitza-, eta, haien artean, txiroenak, baztertuenak eta arreta txikiena jasotzen dutenak.

Pertsona guztiek, gizakiak direnez, badute duintasunik. Estali beharreko premiak eta garatu beharreko ahalmenak zein gaitasunak dituzte, baina ez dute bakarka egiten, gizartean doazelako prestatzen, hazten eta sortzen”.

“(…) Uste sendoa dugu abiapuntu: pertsonaren duintasuna, edozein egoeratan dagoela ere. Horrez gain, pertsona osotasun integral gisa ulertzen dugu”.

“Bidelaguntzatik gerturatzeko gure gara, bideak izan behar ditugu xede nagusi eta ez hainbeste helmugak. (...) Guretzat, ekintza subjektuen arteko elkarrizketa da eta ez subjektuak objektuaren gainean jarduteko jarduera. Ez dago ez alde aktiborik ez alde pasiborik, subjektuen arteko benetako harremana delako eta, bertan, denborak nahiz topaketak apurka-apurka pertsona egiteko aukera ematen digutelako”.

Gizarte Ekintzarako Eredua. Caritas Bizkaia 2009





Edukien aurkibidea

SARRERA	6
1. KAPITULUA: BEGIRADA	8
GIZARTE-BAZTERKETA, DIMENTSION ANITZEKO EREMU KONPLEXU ETA DINAMIKOA	8
Bazterketa maila anitzeko ikuspegitik: banakakoa, erkidea eta egiturazkoa	8
Bazterketaren dimentsio anitzeko ikuspegia	11
Bazterketa-inklusioaren dinamika, pairatzaileen bizi-prozesuen ikuspegitik: <i>txirotasunaren zein bazterketaren kiribilak, txirotasunaren belaunaldi arteko igorpena eta bizitzako historiak</i>	12
2. KAPITULUA: METODOLOGIA	15
1. PERTSONA OINARRI DUEN LAGUNTASUN INTEGRALA	15
2. CARITASEKO LAGUNTASUN INTEGRALAREN OINARRIAK	15
2.1. Gizakien duintasuna. Pertsona, dimentsio anitzeko izakia	15
2.2. Gizakiak eskubideen subjektu moduan aitortzea	16
3. LAGUNTASUN INTEGRALAREN EZAUGARRIAK	17
4. PERTSONA OINARRI DUEN LAGUNTASUNA, GIZARTE-BAZTERKETAREN FAKTOREEN ESPARRUAN, CARITASEKO GIZARTE EKINTZARAKO EREDUAREN ARABERA	17
5. GARAPEN METODOLOGIKOA	21
5.1. Abegi integrala. Lehenengo uneak badu zeresanik. Abegiaren garrantzia.	22
5.2. Banakako laguntasunaren ibilbidea	27
5.2.1. Balorazioa	28
5.2.2. Banakako plana	45
5.2.3. Jardueren garapena	46
5.2.4. Prozesuko laguntasuna	47
5.2.5. Laguntasunerako prozesuaren amaiera	48
Bibliografia	49

Sarrera

Caritas Bizkaiak komunitate kristau osoari laguntzen dio bere gizarte eta karitate arloko dimentsioan. Boluntariora oinarri, konpromiso soziala, partaidetza eta sareko lana sustatzen ditu. Gizarte-inklusioko prozesuan laguntzen die pertsonari. Horretarako, haien itxaropena elikatzen du, eta pertsona guztien eskubideen alde lan egiten du, bizitza duina garatu dezaten. Bidegabekeria sorrarazten duten egoerak agerian jarri, haien inguruan sentsibilizatu eta salatu egiten ditu, eta gizartea eraldatzeko alternatibak proposatzen ditu.

(Caritas Bizkaiaren xedea)

Caritas Bizkaiak bere gizarte-ekintza hedatzea du helburu. Horretarako, boluntarioen partaidetza zein konpromisoa dinamizatzen ditu, txirotasuna nahiz bazterketa pairatzen dituztenei laguntzen die eta haien egoeren inguruan dihardu, egoera horiek pairatzaileetatik haratago doazen gertakari sozialtzat jotzen dituela kontuan hartuta.

Agiri honek **“Laguntza Integraleko Metodologia” (LIM)** sistematizatzen du, hau da: *pertsonari bizitza duinerantzko prozesuetan laguntzeko modua, giza eskubideak zein gizaki guztien dimentsio anitzak kontuan hartuta eta pertsona bakoitzaren bizitzako unetik nahiz testuingurutik abiatuta (familia eta testuinguru erkidea)*. Metodologia hau bere lau giltzarriak elikagai dituen Caritaseko Gizarte Ekintzarako Ereduearen ezarpen praktikoa da:

PERTSONA ERDIGUNE: denok Jaungoikoaren seme-alabak gara, eta duintasun berbera daukagu. Egoera txarragoan daudenen aldeko aukera dugu. Ahalmenetatik eta gaitasunetatik lan egiten dugu, gizartean, ingurunean duten agerpena kontuan hartuta.

MAITASUNA ERAGILE: abiapuntua: “Berak lehendabizi maite gintuen”. Maitasunak justiziaren alde egitera garamatza, guztiok duintasun berbera eta eskubide berberak izan ditzagun.

ELIZA ZEINU: adoretu eta lagundu egiten dituen komunitate kristauean sustraitutako Caritas. “Boluntariora, Jaungoikoaren maitasunaren doakotasunaren eta guztion ongiaren eraketaren inguruko konpromiso eskuzabalaren adierazgarri gorena”.

ERREALITATEA ESPARRU: inguruabar sozialak kontuan hartzea eta egiten duguna etengabe aztertzea eta berrikustea, geure zerbitzuak egokitzeko.

Bidekagun Integraleko Metodologiak (BIM) pertsonaren banakako arreta zehazten laguntzen digu, eta arreta horrek komunitatearekin (batez ere, komunitate kristauarekin) egindako lana du oinarri, laguntza-sareak errazago sortzeko eta egitura sozialen aldaketarako eragin politikoa lantzeko. Arlo bakoitzak, hau da, pertsona-eremua, komunitate-eremua eta egitura-eremua, bere estrategiak, metodologiak, tresnak, jakintzak... ditu, eta euren artean daude lotuta.

Caritaseko eragileentzako (boluntarioak eta profesionalak) tresnak eskaini nahi ditugu, eskuhartzea zuzena egiten dutenentzat nahiz laguntza teknikoak ematen dutenentzat, gizarte-eskuekarako proiektuetan boluntarioen lana dinamizatu eta laguntzen dutenentzat. Horrela, bidekagun sozialerako partekatutako metodologiari eta tresnei esker, koordinazioa zein taldeko lana errazten da.

Ekintza boluntarioa Caritasen ezaugarri bereizgarria da. Guretzat, boluntariora, batez ere, komunitate kristauren eta, oro har, herritar guztien elkartasunaren adierazgarri zuzena da. Elkartasun horren laguntzaz, gainera, bizileku daukagun gizartea gizatiarragoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa da, baita parte-hartzaileagoa eta, horren ondorioz, demokratikoagoa ere.



Boluntariotzak herrien garapenean laguntzen du, gizarte-sarea sortzen duelako, ideia zein mugimendu eraldatzaileei ematen dielako estaldura eta beste ikuspegi bat nahiz beste balio bat eskaintzen dizkio bizitzari, doakotasunaren eta gainerakoekiko elkartasunaren bitartez.

Horrek guztiak Caritas Bizkaiaren balioak ditu oinarri:

Duintasuna, justizia soziala eta erantzukizuna: Pertsonaren duintasuna ezinbesteko manu gisa, justizia ahulenen defentsa gisa, eskubideak gehien urratzen zaizkien pertsonen eskubideak defendatzeko, eta konpromiso arduratsua, zerbitzuaren bidez erantzuna ematen duena.

- **Neba-arreben arteko maitasuna:** pertsonekin lotzen gaituen arreta eta zainketa baldintzagabea.
- **Hurbiltasuna:** tokian tokiko konpromisoa, berdintasunetik eta errespetutik lotuneak sortzen.
- **Itxaropena:** bizitzaren zentzua sostengatzen, laguntzen eta bultzatzen duen erabateko konfiantza.
- **Partaidetza:** nor bere bizitzako protagonista izateko eta bere ingurunean bete-betean parte hartzeko bidea.
- **Doakotasuna:** trukean ezer itxaron gabe garena eta daukaguna beste batzuen zerbitzura jartzeko prestasuna.
- **Zintzotasuna:** ezaugarri bereizgarriekiko koherentzia eta indarra nahiz ahulezia geure gain hartzeko zuzentasuna.
- **Eraginkortasuna:** geure xedea behar bezala betetzeko gaitasuna, geure baliabideei eta aukerei ahalik eta onura handiena aterata.

Horrela, Caritas osoari eta hirugarren sektore sozialari lagunduko diegulakoan gaude.

Caritas Bizkaia



1. kapitulua


BEGIRADA

GIZARTE-BAZTERKETA, DIMENTSION ANITZEKO EREMU KONPLEXU ETA DINAMIKOA.

Bazterketa maila anitzeko ikuspegitik: pertsona eremua, komunitate eremua eta egitura eremua.

Hasieratik adierazi dugunez, txirotasuna, zaugarritasuna eta gizarte-bazterketa sorrarazten dituzten mekanismoak pairatzen dituzten pertsonetatik eurretatik haratago doaz. Bizitzako ibilbideak ez ezik, norberaren inguruabarrek, gaitasunek eta erabakiek, testuinguru komunitarioek zein kulturalak eta egitura sozial, politiko eta ekonomikoek ere sorrarazi ditzakete txirotasuna, zaugarritasuna eta gizarte-bazterketa, edo horiek gainditzeko aukerak sorrarazi ditzakete. Gertakari konplexuak dira, eta pertsonen eremu hurbil eta zehatzenetan agertzen dira, baita eremu komunitarioetan eta gizarteko egituretan ere. Ikuspegi horretatik, txirotasuna, zaugarritasuna eta gizarte-bazterketa jasaten dituztenen inguruabarrak eta gizarte-inklusioa dutenen errealitatea elkarren artean daude lotuta. Txirotasuna, zaugarritasuna eta gizarte-bazterketa gainditzeko, ezinbestekoa da “aukeren gizartean” bizi diren biztanleak inplikatzeko, egoera horiek sorrarazten dituzten testuinguru erkide, kultural eta gizarte-egiturazkoen parte direlako eta testuinguru horiek eratzten dituztelako. Hori dela eta, guztion ongian eta kohesio sozialean oinarritutako gizartea eratu beharra dago. Caritasek ikuspegi bateratu eta egiturazkotik garatzen duen ekintzak eraketa horretan laguntzea du helburu.

MAILA ANITZEKO IKUSPEGIA GIZARTE INKLUSIO-BAZTERKETAREN SORRERAN





García Rocak adierazten duenez, hiru eratako hausturak dira bazterketaren arrazoiak: “1) egiturazko hausturak (politikoak, gizarte-ereduak), 2) hurbileko testuinguruaren haustura (komunitarioak) eta 3) bizitzako dinamismoen ahultasuna (gizabanako bakoitzaren testuinguruan gertatutako hausturak)”. (García Roca, 2006).

Egilea beraren esanetan, maila anitzeko ikuspegi horretatik, honakoa behar da bazterketa-inklusioko prozesu konplexuetako gizarte-ekintzan:

- a) **Erresilientziarako eskuhartzeak:** sare sozialak berreratzea eta, horretarako, pertsonak berrikuntzarako, lankidetzarako eta partaidetzarako gaitasuna duten eta euren prozesuko subjektutzat jotzen dituen kontzeptiotik abiatzea.
- b) **Laguntasunerako eskuhartzeak:** laguntzarako harremanean daude oinarrituta eta hurbiltasunetik nahiz gertutasunetik hedatzen dira. Bidelaguntzak bere estrategia hedatzen du zehaztugabetasunaren, konplexutasunaren eta inplikazioaren printzipioak ezaugarri bereizgarri dituen testuinguruan, eta gizabanakoa lotzen du bere abagune eta aukerekin.
- c) **Lankidetzarako eskuhartzeak:** errealitatea eraldatzea du helburu. Lankidetzarako eskuhartzeak, arazo sozialei haien egiturazko mailetan aurre egiteko estrategia. (...) Lankidetzarako jarduketek erantzukizun bateratuko egituren sorrerara eta ekintza bateratura garamatzate bazterketaren aurkako borrokan, erronka kolektiboa dela ulertuta. Eskuhartzea sozialak “prozesuen bultzatzailetzat” hartzen dira. (García Roca, 2006).

ZEHARKAKO ARDATZAK

Aldi berean, maila anitzeko errealitate horrek **zeharkako ardatzak** ere baditu, eta gure ekintza-estrategietan sartzen dira.

1) Eskubideen ikuspegia: giza eskubideek ezinbesteko baldintzak ezartzen dituzte, giza duintasuna bermatu dadin eta pertsonak askatasuna, justizia eta bakea ezaugarri bereizgarri dituen ingurunean bizi daitezen. Geure duintasun besterenezinaren arabera, guztiok eskubideen subjektuak gara. Txirotasuna, zaugarritasuna eta gizarte-bazterketa giza eskubideen urraketarekin lotuta daude beti. Zer eskubide urratzen diren eta txirotasun-egoeretan nola urratzen diren zehazten ikasi behar dugu. Garrantzitsua da antzemandako arazoaren eta urratzen den eskubidearen arteko harremana aztertzea. Horretarako, funtsezkoa da eragileen triangelua zehaztea:

- I Eskubideen subjektua: pertsona bakoitza.**
- II Eskubideen bermatzaileak:** Estatua da, maila guztietan, giza eskubideak eta eskubide horien erabilerarako ez-bereizkeria defendatzeko, babesteko, sustatzeko eta bermatzeko betebeharrak juridikoa daukana.
- III Erantzukizunaren subjektuak:** erakunde zibilak, sozialak, sektore pribatua, komunikabideak, Hirugarren Sektorea, Eliza eta pertsona guzti-guztiak, gizartearen parte moduan.

Eragileen triangelu horretan, erakunde moduan lekuratzen gara erantzukizunaren subjektu moduan dugun zereginean. Era berean, garrantzitsua da eskubidearen urraketa agerian jartzean honako **lau giltzarri** hauek kontuan hartzea:


- I Erabilgarritasuna:** zerbitzuak, mekanismoak, instalazioak... eskubideak erabili daitezen.
- II Eskuragarritasuna:** pertsona guztientzat daude eskuragarri, inolako bereizkeriarik gabe (fisikoa, kulturala, ekonomikoa, geografikoa...).
- III Onargarritasuna:** talde guztiek dituzten premiak kontuan hartzea.
- IV Moldagarritasuna:** pertsonen eta komunitateen arabera egokitzeko modukoak eta malguak.

Ikuspegi hori kontuan hartzean, badugu geure jarduketetan bilakatzerik eta premien

estalduran oinarritutako ikuspegitik eskubideen defentsara igarotzerik, desberdintasunezkoak eta bereizkeriazkoak diren botere-harremanak eraldatzeko eta pertsonen euren eskubideen erreklamazioarako jabetasuna emateko eta botere publikoetan eragina edukitzeko, euren betebeharrak bete ditzaten. (MTM Giza Eskubideak, 2019)

Ondoren xehetasunez azaltzen diren gainerako zeharkako ardatzak giza eskubideen ikuspegiaren sartuta daude, eta ardatz horiek pertsonen eskubideen garrantziagatik nabarmentzen ditugu.

- 2) **Kultura arteko ikuspegia:** gaur egungo testuinguru globalean, kultura arteko ikuspegiari esker, aniztasun kultural, linguistiko, etnikoaren... aitortza egituratzen duten giltzarriak kontrolatzen ditugu, zenbait jatorritakoak diren eta desberdintasunezko egoeran bizi diren pertsonen bidelaguntza prozesu integralak sortzeko.
- 3) **Genero-ikuspegia:** giltzarriak eskaintzen ditu, bazterketarako prozesuetan eragina duten elementuak ulertzeko eta jorrazteko, desberdintasunezko testuinguru sozial eta egiturazkoan emakumeak izateagatik baino ez emakumeengan eragina dutenean.
- 4) **Partaidetza:** inplikazio pertsonala eta partaidetza soziala lotuta dauden mekanismoak dira, eta eragin ona dute norberaren autonomiarako eta harremanezko integrazioarako aukeretan. Hori dela eta, partaidetza gizarte-eskubideetarako funtsezko estrategia da. Partaidetza *"banakakoa edo taldekoa izan daiteke, eta arlo sozial edo erkideetan izan dezake eragina. Horretarako, motibazioa, gaitasuna eta aukera handitu behar dira, gizabanakoek talde moduan gai sozialetan esku hartu dezaten"*. (EAPN 2010). Beraz, pertsonak bere bizitzako prozesuarekin zerikusia duten erabakietan izan beharreko partaidetza, eremu erkidean izan beharreko partaidetza eta bere izaera baldintzatzen duten egiturazko esparruen eraketan nahiz eraldaketan izan beharreko partaidetza.
- 5) **Sareko lana:** aurreikuspenen arabera garatu nahi ditugun erantzun konplexuetarako aukera ematen du: pertsonen laguntzeko lan koordinatua, sentsibilizazioarako sareko lana, garapen komunitarioa eta eragin politikoa.
- 6) **Etengabeko hobekuntza:** honakoa du oinarri: gizarte-bazterketarako prozesu horien azpian dauden bizitzako eta gizarte dinamikak ezagutzeko eta ulertzeko eta geure xedearren betearazpenean aurrera egiteko garatutako jarduketan eraginaren jarraipena egitea.




Bazterketaren dimentsio anitzeko ikuspegia

Bere Gizarte Ekintzarako Ereduan (Caritas Bizkaia, 2009), Caritasentzat, gizarte-bazterketaren fenomenoaren dimentsio anitzeko errealitate konplexu bezain dinamikoa da. Prozesu pertsonala, komunitarioa eta egiturazkoa da, eta bat egiten duten 5 faktorek osatzen dute: Gabezia: beharrezkoak diren baliabide eta ondasun nahikorik ez edukitzea, biziraupeneko premiei aurre egiteko, pertsonen, komunitateen nahiz gizartearen bizi-baldintza materialetan eragina duela kontuan hartuta. Isolamendua: harremanetan eta laguntzan, lehen mailako sareak (familiakoak, auzokoak) eta bigarren mailako sareak (elkarteetakoak, instituzionalak) ez edukitzea edo ahulak izatea, partaidetzarako, harremanetarako, segurtasunerako, elkartasunerako eta laguntzarako aukerak zein abaguneak apurtzen dituelako erabakiak hartzeko orduan. Mendekotasuna: gaitasun eta baliabide pertsonal edo komunitarioetan zailtasunak izatea, bizitzari duintasunez, askatasunez, autonomiaz eta nortasunez aurre egiteko. Gaixotasuna: osasun fisiko, mental eta emozionala narriatzea, osasunaren ikuspegitik nahiz harreman eta gizarte arloko dimentsioan, baita alderdi psikologiko eta emozionaletatik ere bai. **“Zentzugabekeria”**: bazterketa-prozesuen eta gizakien dimentsio existentzialaren arteko erlazioaren emaitza moduan, bizi-dinamismoetan duelako eragina eta ezintasunaren, etsi menduaren eta galeraren sentimenduak sortzen dituelako. Ikuspeirik eta bizi-zentzurik izan ezean, eragin handia sortzen da gizarte-inklusioko banakako prozesuak garatzeko aukeretan.



Inklusioaren ikuspegitik, zaugarritasunerako zein gizarte-bazterketarako prozesuak lehengoratzeko edota prebenitzeko, kasuan-kasuan aktibatu behar diren faktoreak dauzkagu: **babesa, harremanezko lotunea, sustapena, ongizatea eta bizi-zentzua.**



Gizarte Ekintzaren Eredua. Bizkaiko Caritas (2009)

Ikuspegi soziologiko eta egiturazkotik, bazterketa-inklusioko prozesua *pertsonek, taldeek edo komunitateek era bateko eta besteko esparru sozialetan zehar egiten duten mugimendua* da, *eta, bertan, gizarteko esparru nagusia da inklusioaren esparrua.* (FOESSA, 2008). Dinamismo hori irudikatzeko, zenbait egilek bazterketaren ordeko terminoak sortu dituzte, eta zenbait eratarazaldu dute prozesua. Horrela, Robert Castelek (1997) *desafilazio soziala* terminoa proposatzen du, eta hiru unek osatzen dutela dio: integrazioa - zaugarritasuna - bazterketa. Serge Paugamek (2007) *deskalkifikazio soziala* terminoa darabil, eta integratzioko loturak ahultzeko prozesua

azaltzen du, pertsonak gizartearekin dituen bi lotune nagusien hauskortasuna areagotzen denean: enplegua eta lotune sozialak (familiako harremanak, komunitateko partaidetza eta partaidetza politikoa). Deskalifikazio sozialerako prozesu horren ondorioz (*deliaison*), ustezko hiru esparru sortzen dira: integrazioa, hauskortasuna eta bazterkeria.

FOESSA Fundazioaren proposamenean, lau fase edo maila zehazten dira: **Bazterketa Larria, Bazterketa Moderatua, Integrazio Ezegonkorra eta Erabateko Integrazioa**. Lau maila horiek EINSFOESSA - Integrazioari eta Premia Sozialei buruzko Inkestak (FOESSA 2014) oinarri duen bazterketaren adierazleen sistema ezartzen sortzen dira.

EINSFOESSAren sistemak bazterketaren konplexutasuna eta maila arakatzen ditu, baita lau mailetako bakoitza lurralde zehatz batean zer neurritan dauden zabaldua ere. Horretarako, bazterketaren dimentsio aniztasuna islatzen du, eta 3 ardatz handiren inguruan egituratzen du: **Ardatz Ekonomikoa, Ardatz Politikoa** (eskubideen eskurapena) eta **Ardatz Soziala** (harreman-arloarekin lotutakoa). Gainera, **dimentsioetan** daude hedatuta; esate baterako, **Enplegua, Kontsumoa, Eskubide Politikoa, Hezkuntza, Etxebizitza, Osasuna eta Harremanak**. (FOESSA, 2008).

GIZARTE-BAZTERKERIAREN ARDATZAK	GIZARTE-BAZTERKERIAREN DIMENTSIONAK	Alderdiak
Ardatz ekonomikoa	ENPLEGUA: ekoizpenean parte hartzea.	Soldata-harreman normalizatutik baztertuta egotea.
	KONTSUMOA: kontsumoan parte hartzea.	Txirotasun ekonomikoa. Gabetzea.
Ardatz politikoa	HERRITARTASUN POLITIKOA	Eskubide politikoak eraginkortasunez eskuratzea. Abstentzionismoa eta pasibotasun politikoa.
	HERRITARTASUN SOZIALA	Babes sozialerako sistemarako sarbide mugatua: OSASUNA, ETXEBIZITZA eta HEZKUNTZA.
Ardatz soziala	LOTURA SOZIALIK EZ EGOTEA	Isolamendu soziala, babes sozialik eza.
	HARREMAN SOZIAL "MALTZURRAK"	"Desbideratutako" sare sozialetan integratzea. Gatazka sozialak (jokabide anomikoak) eta familiarak (etxeko indarkeria).

Iturria: FOESSA, 2008.

Bazterketa-inklusioaren dinamika, pairatzen dutenen bizi-prozeduren ikuspegitik: *txirotasunaren eta bazterketaren kiribilak, txirotasunaren belaunaldi arteko igorpena eta bizitzako historiak.*

Bazterketaren ikuspegi **dinamikoari** eusten badiogu, pertsona jakin batzuk azaltzen dituen egoera estatikotzat barik **prozesutzat** jotzen dugu. Aldi berean, prozesuaren ideiak errealitateak aldaketarako nahiz eraldaketarako eskaintzen dizkigun aukeren aldeko apustuarekin lotzen gaitu. Errealitatearen ikuspegi dinamiko horrek laguntasun sozialari ematen dio zentzua, lagundutako pertsonen bizi-egoerak hobetzea helburu duen laguntza-prozesua dela ulertuta.

Bazterketa-inklusioko prozesuei norberaren bizi-prozesuen ikuspegitik erreparatu gero, **"txirotasunaren eta bazterketaren kiribilen"** paradigmak eta **"txirotasunaren belaunaldi arteko igorpenaren"** ikuspegiak (FOESSA, 2016) horrelako inguruabarretan daudenentzako laguntasun sozialerako kontuan hartu beharreko elementu garrantzitsuak eskaintzen dituzte.

Txirotasunaren belaunaldi arteko igorpenaren inguruko ikerlanei esker, pertsonetan eragina duten arrisku-faktoreak azaltzen dira, euren bizitzako lehenengo etapetan familia txiro





batean bizi izan direnean eta, horren ondorioz, pertsona horiek helduaroan txirotasuna eta ezegonkortasun ekonomikoa jasan ditzaketen. Gai horiek, gainera, dimentsio ekonomikotik haratago doaz; esate baterako:

- **Familiak** seme-alaben **hezkuntzan egindako inbertsioa** (eta familiaren egoera ekonomikoarekiko harremana).
- **Gaitasunen zein trebetasunen** igorpena eta gurasoek horien inguruan duten **balorazioa**.
- Zaurgarritasuna azkartzen duten faktore moduan edo zailtasunen aurrean erresilienteak diren faktore moduan jokatu dezaketen portaera-**ohituren, jarreren, printzipioen eta balioen** igorpena.
- Gurasoek erdietsitako **hezkuntza-maila**.
- **Inguruneko dibertsitate soziodemografikoa** (auzoan hiri-ekipamendua zuzkitzeko eta integratzeko orduan zabalik dauden eremuak) edo, bestela, bertako estankotasun soziala (harreman sozial endogamikoak eta inguruneko zuzkidura-bereizkeria).
- Mugikortasun soziala baldintzatzen duen **gizarte-eredua** (errenta-desberdintasunaren maila, politika sozialetako inbertsioa, aukera-berdintasuna...)¹.

Era berean, **BIZITZAKO GERTAERA ESTRESAGARRIEK**² (BGE) duten zeresan handia nabarmendu beharra dago, baita laguntza-sare sozialen zaurgarritasun-mailarekin duten lotunea ere:

“Zaurgarritasun-profil nabaria duten sare sozialetako kideetak bizitzako gertaera estresagarrietarako aukerak handitzen ditu. Haurtzaroan edota nerabezaroan horrelako gertaera bat edo batzuk pairatzen direnean, baliteke sareak modu nabarian ahultzea ezinbestean. Kasu horretan, ez ginateke egongo “txirotasunaren gurrpil zoroaren barruan, une horretan kiribil bihurtuko litzatekeelako”. (FOESSA 2016).

BGEak ikuspegi kuantitatibotik ez ezik, ikuspegi kualitatibotik ere hartu behar dira kontuan, hau da, gertaeren sakontasuna zein larritasuna ez ezik, pairatu direnen kopurua ere bai. Azken batean, arlo horretan egindako lanek egiaztatu egiten dute bizitzako gertaera kaltegarri horien edo nahikoa larriak diren zenbait gertaeraren kopurua handia denean, eragina izan dezaketela osasun fisiko nahiz mentalean, baita sare-sozialak eta gizarteratze-prozesuak ahultzeko prozesuan ere. (Muñoz, Vázquez eta Vázquez, 2003).

- Haurtzaroko tratu txarrak
- Erreferentziako pertsonen heriotza
- Bikotearen banaketa eta dibortzioa
- Laguntza sozialaren falta, bakardadea edo utzikeria
- Adikzioak
- Etxebizitzaren galera
- Langabezia
- Norberaren burua hiltzeko saialdiak
- Migrazio-prozesua

BGE: pertsonen bizitzako gertaera nabari bezain traumatikoak, haien aldaketa ebolutiboan garrantzitsuak izan direla aitortzen dutenean.



Batez beste, etxegabeek 14 gertaera dituzte bizitzan; eta 5, 30 urte bete baino lehen. Pertsona normalizatuek, ordea, 3 edo 4 gertaera izan ohi dituzte bizitza osoan.

¹ Faktore horiek azterlan honetan zehazten dira: “La transmisión intergeneracional de la pobreza: factores, procesos y propuestas para la intervención”. Flores Martos, R. (koord.). FOESSA, 2016, Madril, Daviak eta Legazpek (2013) gaiari buruz egindako azterlanen berrikuspen dokumentalaren arabera.

² Era berean, Bizitzako Gertaera Kritikoak ere esaten zaie (Muñoz, Vázquez eta Vázquez, 2003). **BIZITZAKO GERTAERA ESTRESAGARRIAK** honakoekin lotutako zenbait gertaera dira, eta eragin sakona dute pertsonen bizi-dinamiketan: senide hurbilen heriotza (aitak, amak, bikoteak, seme-alabak), etxetik kanporatzea, enplegutik kanporatzea, gaixotasun akuatuak, adikzio larriak...

BGE-en, eskuhartzea sozial arazotsuen eta baldintza material zailen eraginez egoera zaurgarrietan dauden bizi-ibilbideek eragina dute pertsonen pertzepzioarako eta autopertzepzioarako duten sisteman. Horrela, behin eta berriro BGE-en eraginpean dauden bizi-ibilbideak sortu daitezke, eta, aldi berean, sare sozialak ahultzen dituzte eta eragina dute pertsonen zein haien testuinguru hurbilenean zaurgarritasunean. Dinamika horretan, BGE pairatzeko aukerak modu esponontzialean handitzen direnez, kiribila sortzen da. Dinamika horretan, denborak aurka jokatzen du beti: zenbat eta denbora gehiago eman bazterketaren kiribilaren eraginpean dagoen bizi-dinamikan, orduan eta handiagoa izango da ez itzultzeko aukera, subjektuak bere baldintzak eta bere etorkizuna kontrolatzeko dituen gaitasunak urriak edo ezdeusak direlako. (FOESSA, 2016).

Ikuspegi horretatik, norberaren biografia ulertzea (bizitzako historia) ezinbestekoa da, laguntasun soziala testuingururatzeko, laguntasun horretan eskainiko genukeen laguntza pertsonalizatzeko eta, ahal den neurrian, pertsonaren bazterketa-dinamikari buelta ematen edo, gutxienez, ez larriagotzen laguntzeko.

Azken batean: eskurapena eta atxikimendua

Bazterketa-inklusioaren dimentsio anitzeko ikuspegia bi giltzarriekin zerikusia duen gaia dela laburtu genezake: eskubideen **eskurapena** eta **atxikimendua**, hau da, pertsonaren harremanezko lotuneak eta komunitarioak (Renes, V. eta Lorenzo, F., 2011). Ikuspegi horri esker, dimentsio anitzeko azterketa egin dezakegu, eta, bertan, eskubideen dimentsio politikoa harremanen dimentsioarekin bateratzen denez, egiturazko faktoreak faktore pertsonal, familiar eta komunitarioekin sintetizatzen dira.

Hartara, honakoak elkarrekin lotuz gero:

- a) Ardatz honek premia biziko ondasunen **ESKURAPENAREKIN** du zerikusia (famiaren txirotasun-atalasearekin eta diru-sarrerekin lotutakoak), baita zenbait eskubide sozialen estaldurarekin ere; esate baterako, etxebizitza, hezkuntza, babesa edo osasuna. Bertan, gainera, 3 gune bereizten dira: GABEZIA, ZAURGARRITASUNA ETA SEGURTASUNA.
- b) **ATXIKIMENDUAREN** faktoreen inguruko harremanezko ardatza. Kapital sozialarekin, laguntza-sareekin zein familiarrekin eta eragin handiko bizitzako gertaerekin (Bizitzako Gertaera Estresagarriak - BGE) du zerikusia, eta, bertan, 3 aukera ere antzematen ditugu: BABESA, ARRISKUA ETA KALTEA.

ESKURAPENA eta ATXIKIMENDUA bateratuz gero, pertsonen jasan ditzaketen era bateko eta besteko faseen dimentsio anitzeko matrizea lortzen dugu.

ATXIKIMENDUAREN ETA ESKURAPENAREN ARTEKO ELKARGUNEN BAZTERKETA-GUNEAK			
BABESA	Gabezia babestua	Zaurgarritasun babestua	Segurtasun babestua
ARRISKUA	Arriskudun gabezia	Arriskudun zaurgarritasuna	Arriskudun segurtasuna
KALTEA	KalTEDUN gabezia	KalTEDUN zaurgarritasuna	KalTEDUN segurtasuna
	GABEZIA	ZAURGARRITASUNA	SEGURTASUNA

Iturria: Renes, V., Lorenzo, F. (2011)





2. kapitulua

METODOLOGIA

1. Pertsona oinarri duen laguntasun integrala

Lehen azaldu dugunez, bazterketa-inklusio sozialaren prozesuak egitura sozialekin, ingurune komunitarioekin eta pertsona zehatzekin zein bere familiekin du zerikusia. Hemen sistematizatzen dugun metodologia maila pertsonaleko Bidelaguntzarena da. Beraz, lehen aipatu ditugun **“laguntasunerako eskuhartzeak”** sistematizatzen ditugu (García Roca, 2006).

Bidelaguntza prozesuan, pertsona eta familia erdigunean daude, pertsona bera bere konplexutasun osoan ulertuta. Ezaugarri bereizgarri dituen dimentsio ugariak, bere historia eta bere bizitzako unea hartuko ditugu kontuan.

Honakoa da bidelaguntza: pertsonaren ondoan jartzea, proiektu bateratua partekatzea. Beste pertsonari eta haren historiari beste begi batzuek begiratzea, berak bere burua ikusteko eta bere buruari beste era batera begiratzeko aukera izan dezan. Ezin dugu pentsatu pertsona guztiak modu berean eta neurri berean hasiko direnik. Pertsona bakoitzaren ibilbideak eta helburuak pertsonalizatzeko aukerei atera behar diegu onura, haietako bakoitzaren ezaugarriak eta erritmoak errespetatzeko. Hasteko prozesua egokia izan dadin, ingurunea eta pertsona zaindu behar ditu. Beraz, guretzat, honakoa da bidelaguntza:

- 1) SUBJEKTUENARTEKO ELKARRIZKETA. Bertan, bidelaguntzaileak izatea dagure zeregina. Honako mezu honen bidez eman dugu bidelaguntza: “nor bait zara, alboan naukazu eta zuri laguntzeko prest dagoen nor bait naiz”. (Gizarte Ekintzarako Eredua, Caritas Bizkaia, 2009).
- 2) PERTSONA MODUAN HAZTEKO AUKERA EMATEN DIGUTEN DENBORA ETA TOPAKETA, ahuleziak ez ezik, lagundutako pertsonaren ahalmenak ere abiapuntutzat hartuta, batez ere. Era berean, geure ahalmenak zein ahuleziak ere aitortu eta landu egiten ditugu, bidelaguntzari kalitate handiagoa emateko.
- 3) PERTSONALIZATZEKO PROZESUA, haien benetako egoeretan pertsona zehatzekin hartutako konpromiso aktibotik.
- 4) TOPAKETA ERALDATZAILEA, pertsona moduan hazteko aukera izan dezagun.

2. Caritaseko bidelaguntza integralaren oinarriak


2.1. Gizakien duintasuna. Pertsona, dimentsio anitzeko izakia

Bidelaguntza integralerako metodologiak gizakien duintasuna aitortzea du abiapuntu. Duintasunaren aitortza hori erabatekoa da, pertsonaren bizitzako inguruabarrak edonolakoak direla ere (bizi duen inguruabarra edonolako dela ere). Caritasek egoera hauskorrenean eta zaugarrienean dauden aldeko apustua egiten du.

“Gure ekintzaren xede nagusia pertsonak (pertsona bakoitza) dira; eta, haien artean, txiroenak, baztertuenak eta arreta gutxien jasotzen dutenak.

Pertsona guztiak, gizakiak direnez, badute duintasunik. Estali beharreko premiak eta garatu beharreko ahalmenak zein gaitasunak dituzte, baina ez dute bakarka egiten, gizartearen doazelako prestatzen, hazten eta sortzen”. (Caritas Bizkaia, 2009).

Bere ikuspegi besterenezinetik, **pertsona bera bidelaguntza sozialaren erdigunean dago kokatuta, pertsona bera prozesuaren protagonista da.** Pertsonetan oinarritutako ikuspegi integralak pertsonaren bizi-egoera ulertzea du abiapuntu, gizaki guztien dimentsio ugariak kontuan hartuta. Norberaren dimentsio horiek honakoak direla zehaztu dugu: Ekonomia, Etxebizitza, Egoera Administratiboa, Enplegua/Okupazioa, Prestakuntza, Aisialdia, Norberaren Trebetasunak, Familia, Harremanak eta Lotune komunitarioa, Osasuna, Itxaropena eta Espiritualtasuna/Tranzendentzia.



Fuente: Caritas Bizkaia. Bertan egin.

2.2. Gizakiak eskubideen subjektu moduan aitortzea

Gizakien duintasuna eta zentraltasuna abiapuntu, Caritasen gizarte-ekintzak duintasun hori babesten duten giza eskubideak defendatzeko konpromisoa du. Hona hemen giza eskubide horien ezaugarriak: **unibertsalak, urraezinak, besterenezinak eta banaezinak.** Bidean laguntzen dugunean, pertsonaren askatasuna errespetatzen dugu, eta behar besteko baldintzak sortzen saiatzen gara, giza duintasuna, eskubideak eta partaidetza bermatzeko. Gure konpromisoak herritartasun aktiboa eta kohesio soziala eratzea du helburu.

Bidelaguntza eskubideen begiradatik egiten dugunez, berdintasunezko harremanean gaude erabat: pertsonok duintasun eta eskubide berberak ditugu. Hori dela eta, bidean laguntzeko orduan, beste pertsona eskubideen subjektua dela hartu behar dugu kontuan eta ez ekintzako onuraduna dela. **Pertsona bera bere prozesuaren protagonista da, eta bidelaguntzak bere eskubideak bete-betean erabili ahal izango dituela bermatzea dauka helburu.**

Eskubideen begiradaren ondorioz, aldarrikapenaren, salaketaren eta eragin politikoaren ikuspegia hartu behar da kontuan. Bidelaguntzak, beraz, legeek uzten dizkiguten kezak, erreklamazioak nahiz salaketak igortzeko bidea eta laguntza izateko aukera eskainiko du, eta, horretarako, haien defentsarako mekanismoak ezagutu eta egituratu egin behar ditugu. Eskubideen urraketa horiek modu kolektiboan biltzen baditugu, irakurketa globala ere egin ahal izango dugu, eta, horren bidez, sentsibilizazioa zein eragin politikoa aktibatu ahal izango ditugu. Ekintza horiek garatzeko, funtsezkoa izango da beste erakunde batzuekin bat egitea, eraginerako nahiz sentsibilizaziorako garatzen ditugun ekintzei eta interesdunen euren partaidetzari indar handiagoa emateko.





3. Laguntasun integralaren ezaugarriak

Txirotasunaren, zaugarritasunaren zein gizarte-bazterketaren inguruan dugun begirada eta pertsonetan oinarritutako laguntasun integralaren oinarriak zehaztuz gero, honako ezaugarri hauek ditu bidelaguntzak:

- **Eskubideen subjektuak diren gizakien duintasuna** prozesu osoaren abiapuntua eta oinarria dela aitortzea eta, horretarako, eskubide horiek bete-betean aitortzeko Bidelaguntza ematea.
- **Bizi-kalitatearen eta norberaren autonomiaren hobekuntza**, Bidelaguntzaren xede, oso zailak izan arren egoera guztietan dauden ahalmenak, gaitasunak eta aukerak ezagutzeko.
- Berezko helburutzat barik, eraldaketa soziala eta giza eskubideen erabateko erabilera lortzeko bitartekotzat jotzen den **partaidetza**. Bidelaguntza jabetzadun partaidetza aktiboan emateko apustua egiten dugu, erabakiak hartu ahal izateko eta errespetatu ahal izateko.
- Lagundutako pertsona pairatzen ari den egoera pertsonal eta familiarraren ahalik eta **ulerkuntza integral** osoenean oinarritutako **banakako** bidelaguntza.
- **Bizi-zikloaren ikuspegia**: bidelaguntzan, pertsona bakoitzaren erritmoa eta bizitzako unea kontuan hartzea eta prozesua biografia pertsonalaren esparruan testuingururatzeko.
- **Bidelaguntza beste batzuekin ematea**. Gure bidelaguntza zabalagoa den prozesuaren parte da, eta, bertan, beste eragile, profesional zein boluntario batzuek eta pertsonaren harreman-sareak ere parte hartzen dute. Pertsona garatzen ari den prozesuaren koordinazioa eta ikuspegi integrala zaindu beharra dago.
- **Dibertsitate kultural, funtzional eta generokoaren arreta eta errespetua**. Bidelaguntzan, dibertsitate hori kontuan hartzea, dibertsitatea horretara egokitzea eta haien arabera sortu daitezkeen egoera desabantailatsuak edo bereizkeriazkoak antzematea. Babesa ematea eta haien hobekuntza aldarrikatzea.

4. Pertsona oinarri duen bidelaguntza, gizarte-bazterketaren faktoreen esparruan, Caritaseko Gizarte Ekintzarako Ereduaren arabera

Bidelaguntza ikuspegi integralaren bidez emateko, gizarte-bazterketan zeresana duten dimentsio ugariak hartu behar ditugu kontuan, baita gizaki guztien era bateko eta besteko dimentsioak ere.

Gizarte-bazterketari dagokionez, Caritaseko Gizarte Ekintzarako Ereduan zehaztutako bazterketa-inklusioren 5 faktoreak izango ditugu gidari: ISOLAMENDUA - HARREMANEZKO LOTUNEA (edo bazterketako harremanen dimentsioa ere bai), MENDETASUNA - SUSTAPENA, GABEZIA - BABESA, GAIXOTASUNA - ONGIZATEA ETA ZENTZURIK GABEA - BIZI-ZENTZUA.

Kasu bakoitzean, zer arazotan eragin nahi dugun zehazten dugu, baita Caritasen proposatzen ditugun xedeak ere. Xede horiek ekintza-maila guztietarako zehazten dira: pertsonalena/familiarrena, egiturazkoa, erkidea... Bidelaguntza integralerako metodologiak maila pertsonalenak izango ditu helburu nagusi.

4.1. ISOLAMENDUA - HARREMANEZKO LOTUNEA (Harremanen dimentsioa)

4.1.1. ZER ARAZOTAN ERAGIN NAHI DUGUN:

ISOLAMENDUA: "Laguntzarako sareak haustea da. Horrelako egoeren ondorioz, ezinezkoa da partaidetzaren, harremanen eta ulerkuntzaren arloko premiei aurre egitea, eta zaila da partekatze edo erabakiak hartzeko lekuak edukitzea".

“Lotune sozialak hausten zaizkigunean, protagonismoa sustatzea proposatzen zaigu, geure gaitasunetan konfiantza edukitzeko, motibatze eta lotune sozialak berritzen laguntzeko”. (Caritas Bizkaia, 2009).

4.1.2. CARITASEN HARREMANEN DIMENTSIONARI DAGOKIONEZ PROPOSATZEN DITUGUN XEDEAK:

- 1) Pertsonek laguntzarako sare sozialak edukitzea.
- 2) Familiako lotuneak indartzea eta familia-erresilientzia sortzea. Familiak genero-berdintasunaren ikuspegitik jarduteko ereduak sortzen laguntzea. Zaurien jatorria ulertzea eta trebeziak garatzen laguntzea, kontrolatu edota gaintu ahal izateko.
- 3) Pertsonek eurek lekua aurkitzea ingurune erkidean. Sarea eta lotune komunitarioak sortzen laguntzea.
- 4) Komunitateak harremanetarako eta lotunerako eremuak sortzea, zaurgarritasunean edo gizarte-bazterketan daudenen bertan euren lekua aurkitu dezaten.
- 5) Desberdinen artean bizitzeko eta onartzeko iruditeria sozial Harreratsua eta integratzailea eratzen laguntzea.
- 6) Dimentsio honekin lotutako eskubideak aitortzen laguntzea: komunitateko lanaren bidez norbera garatzeko eskubidea, familia edukitzeko eskubidea...

4.2. MENDEKOTASUNA - SUSTAPENA

4.2.1. ZER ARAZOTAN ERAGIN NAHI DUGUN:

MENDEKOTASUNA: *“Horrelako egoeren ondorioz, ezinezkoa da gaitasun eta baliabide pertsonalak edo komunitarioak edukitzea, bizitzari duintasunez, askatasunez, autonomiaz eta nortasunez aurre egiteko. Mendekotasunari buruz hitz egiten dugunean, ez egitea dugu hizpidea”.*

“Sustapena mendekotasun-egoeretan bultzatu nahi badugu, gertatzen direneko lekuan bertan egon beharko gara, autonomiaren zein norberaren garapenaren alde lan egiteko, bizitzako dinamismoak indartzeko, prestatzeko eta hazkuntza babesteko. Horra iristeko, errespetatu, entzun, Harreraa eman eta pazientziak jokatu beharra dago. Hona hemen, besteak beste, pertsonok gero eta gizatiarragoak izateko beharrezkoak diren giltzarriak”. (Id.).

4.2.2. CARITASEN SUSTAPENARI DAGOKIONEZ PROPOSATZEN DITUGUN XEDEAK:

- 1) Norberaren garapenarekin eta zeregin pertsonal, familiar zein etxekoen betearazpen eraginkorarekin lotutako trebetasunak eta jarrerak hobetzea.
- 2) Bizileku duten inguruneko hizkuntzetan komunikatzen ikastea.
- 3) Beste pertsona batzuekin laguntzarako harremanak eta lotune pertsonal onak zabaltzea.
- 4) Errealitate hurbila ezagutzea eta harekin harremanetan jartzea (inklusio sozialarekin naiz eguneroko bizimoduarekin lotutako baliabide sozialak, hezkuntzakoak, komunitarioak eta pertsonalak, dibertsitate kulturalen elkarrekin bizitzea...),
- 5) Haien hobekuntzarako prozesuan bertan, pertsonen jabeakuntza eta partaidetza sustatzea.
- 6) Gizarte eta lan arloko trebetasunen hobekuntzan aurrera egitea, gizarte eta lan arloko dinamizaziorako eremuetan eta lan-aktibaziorako ibilbideetan parte hartuta.
- 7) Prestakuntza eta lan arloko ibilbideen bitartez, enplegarritasuna hobetzea, pertsonak prestatu daitezten eta, euren prozesuan behar duten bidelaguntzaz, enplegua bete-betean bilatzen hasi daitezten.
- 8) Ekintza esanguratsuen bidez, egoera zaurgarrian eta gizarte-bazterketapean daudenentzako enplegu-aukerak sortzea.
- 9) Pertsona guztientzako eta, batez ere, egoera zaurgarrian eta gizarte-bazterketapean daudenentzako lan-aukerak eta partaidetza soziala sortzen dituen gizarte eratzeko laguntzea.
- 10) Dimentsio honekin lotutako eskubideak eskuratzen laguntzea: enplegu duintasunerako eskubidea, prestakuntzarako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea...





4.3. GABEZIA - BABESA

4.3.1. ZER ARAZOTAN ERAGIN NAHI DUGUN:

GABEZIA: *“Pertsonak, familiek, komunitateek edo lurraldeek babesaren, segurtasunaren eta biziraupenaren arloko premiei aurre egiteko orduan beharrezkoak diren baliabideak eta ondasunak ez dituztenean sortzen da”.* (Id.).

“GABEZIA-BABESAREN faktorean, bizitzarako oinarritzko baldintza materialekin lotutako elementuak hartzen ditugu kontuan (diru-sarrerak, etxebizitza, arropa...), baita geure herritartasuna aitortua izateko oinarritzkoak diren baldintzak ere, bertan honakoak aipatzen direnean: egoera juridiko administratiiboak, informazioa, eskubideen benetako erabilera eta, hala badagokio, eskubide horien aitortzaren egiaztagirak”.

4.3.2. CARITASEN BABESARI DAGOKIONEZ PROPOSATZEN DITUGUN XEDEAK:

- 1) Pertsonak zer eskubide dituzten jakitea. Behar besteko bermeez nola erabili behar dituzten eta, eskubide horiek urratzen badizkiete, auzitegietara jo dezaketela jakitea.
- 2) Egoera zaurgarrian/baztertuta bizi direnek behar beste diru-sarrera eskuratzeko aukera izatea, biziraupeneko gutxienekoak estaltzeko eta, horri esker, euren gainerako dimentsioen inguruko garapena/jabekuntza lortzeko.
- 3) Pertsonak etxebizitza duina eskuratzeko aukera edukitzea.
- 4) Pertsonak agiri juridiko eta administratiiboak eskuratzeko aukera edukitzea.
- 5) Komunitateak hausnarketa erkatua egitea, txirotasuna/bazterketa nolakoa den jakitea eta aberastasunaren birbanaketan inplikatzeko.
- 6) Biziraupenerako eskubide unibertsala bermatzen duen gizartea eratzen laguntzea.
- 7) Aberastasunaren birbanaketaren alde lan egitea, txirotasuna eta desberdintasun soziala desagerrarazteko.
- 8) Giza eskubideak aitortu eta errespetatzen dituen gizartea eratzen laguntzea.

4.4. GAIXOTASUNA - ONGIZATEA

4.4.1. ZER ARAZOTAN ERAGIN NAHI DUGUN:

GAIXOTASUNA: *“Osasun fisiko, mental eta emozionalaren narriadura da, eta zeresan erabakigarria dauka bazterketarako prozesuetan. Gaixotasunaren eta bazterketaren arteko harremana norabide biko da. Harreman konplexua da, eta, bertan, ez dago argi bazterketa bera den narriadura eta gaixotasuna sorrarazten dituena edo alderantziz. Beraz, gaixotasunaren dimentsio pertsonal eta fisiko ez ezik, bere harreman eta gizarte arloko dimentsioa ere hartzen dugu kontuan, baita bere alderdi psikologiko eta emozionalak ere”.* (Id.).

4.4.2. CARITASEN ONGIZATEARI DAGOKIONEZ PROPOSATZEN DITUGUN XEDEAK:

- 1) Gaixotasuna (fisikoa edota mentala, psikologikoa) dutenek eta haien familiek bidelaguntza edukitzea, baina, batez ere, zaurgarritasun sozialean eta bazterketapean bizi direnek.
- 2) Haien errealtatera egokitutako eremuak eta aukerak edukitzea sustapenari eta harremanei begira. Eremu inklusiboak sortzen dituzten komunitate integratzaileak izatea.
- 3) Osasun-arloko eta gizarte zein osasun arloko arreta unibertsala eta kalitatekoa eskaintzen duen gizartea eratzen laguntzea.
- 4) Osasunarekin lotutako eskubideak eskuratzeko laguntzea.

4.5. ZENTZURIK GABEA - BIZI-ZENTZUA

4.5.1. ZER ARAZOTAN ERAGIN NAHI DUGUN:

“ZENTZURIK GABEA” (bizi-zentzurik eza): *“Pertsonaren giltzarri existentziala erasanda dagoenean gertatzen denez, emozioak, subjektibotasuna eta norberaren dinamismoak inpotenziaren, etsipenaren eta galeraren sentipenez zipriztinduta agertzen dira. Ikuspegi falta pertsonaren jabe egiten denez, etorkizunari begira ez du ezer itxaroten edo ezer gutxi, ez dago inoren zain eta axolagabearena egiten du”.*

Caritasen, espiritueltasunak eta sinesmen erlijiosoek pertsonen bizi-prozesuetan duten garrantziari ematen diogu balioa, baina, batez ere, gure gizatasunaren berezko alderdi dinamiko moduan, azken zentzuaren zein asmoaren eta transzendentziaren bila garamatzalako. Honakoekin dugun harremanaren bidez bizi dugu: gure izatea, familia, beste pertsona batzuk, komunitatea, gizarte, natura eta adierazgarria zein sakratua dena.

Beraz, laguntasun integralerako dugun metodologian sartzen dugu egoera zaugarrian eta gizarte-bazterketapean daudenen dimentsio espiritual, egiaztatuta dagoelako bizi-zentzuaren, erresilientziaren eta itxaropenaren iturri nagusia dela.

4.5.2. CARITASEN BIZI-ZENTZUAREN DIMENTSIOARI DAGOKIONEZ PROPOSATZEN DITUGUN XEDEAK:

- 1) Geure laguntasunean, behar besteko giltzarriak eta baliabideak ezartzea, pertsoneri erresilientzia, transzendentzia-zentzua nahiz espiritueltasuna garatzen, iraganarekin adiskidetzen eta ilusioa zein itxaropena aurkitzen laguntzeko eta, horrela, orainari aurre egin eta etorkizuna eratu ahal izateko.
- 2) Caritaseko proiektuak eta zerbitzuak erreferentziako eremuak izatea, pertsonak aitortu, maite eta kontuan hartzen dituztela sentitu dezaten.
- 3) Komunitateak keinuak, aukerak eta jarrerak garatzea, itxaropena eta, hala badagokio, garapen espiritualerako aukerak suspertzeko, baina, batez ere, zaugarritasunean eta baztertuta bizi direnentzat.
- 4) Ordezko bizi-ereduak, itxaropena eta zentzua sortzen laguntzea.

Caritaseko Gizarte Ekintzarako Ereduan zehaztutako bost inklusio-faktoreak (**Babesa, Sustapena, Harremanezko Lotunea, Ongizatea eta Bizi Zentzua**) eta norberaren dimentsioak (**arloan ekonomikoa, etxebizitza, egoera ekonomikoa, enplegua, prestakuntza, aisia, norberaren trebetasunak, familia, harremanak, osasuna, itxaropena eta transzendentzia/espiritueltasuna**) kontuan hartuta, bi begiradei erreparatzen dien eta metodologiaren oinarria den taula hau eratzten dugu.

Gizarte-inklusioren faktoreak	Norberaren dimentsioak
BABESA	Ekonomikoa
	Etxebizitza
	Egoera Administratiboa
SUSTAPENA	Enplegua/Okupazioa
	Prestakuntza
	Aisia
	Trebetasun sozio-pertsonalak
HARREMANA	Familia
	Harremanak/Lotune Erkidea
ONGIZATEA/OSASUNA	Osasuna
BIZI-ZENTZUA	Itxaropena
	Espiritueltasuna/Transzendentzia

Iturria: Bizkaiko Caritas. Bertan egina.




5. Garapen metodologikoa

Bidelaguntza integralerako metodologiak koherentziaz lotzen ditu pertsona baten partaidetza duten Caritaseko proiektuak. Bidelaguntzarako metodologia honetan, hasieratik amaierara arte eratu eta garatu behar da pertsonaren eta bere bizitzako unearen inguruko lan bateratua. Diziplina ANIZTASUNETIK diziplina ARTEKOTASUNERA igarotzen gara. Horretarako, pertsona/familia, bere unea, bere aukerak, bere premiak... daude ikuspegiaren erdigunean.

Banakako bidelaguntzaren ikuspegi integralak ez du ezinbestean adierazi nahi pertsonaren dimentsio guztietan ekintzak hedatu behar direnik (harremanen dimentsioa, aisia, lana, osasuna, egoera juridikoa, etxebizitza, diru-sarrerak, transzendentzia...) eta pertsonari Caritasean eskuragarri dauden proiektu guztietan ezinbestean bidelaguntza eman behar zaionik.


Eragina izan dezakegu edo erantzunak eskaini ditzakegu dimentsioren baten inguruan bakarrik edota Caritaseko proiektu batetik. Honelako kasuetan, integraltasuna agerian egongo da, honengatik, batez ere:

- 1) Pertsonaren egoera aztertzean, bere bizitzako dimentsio ugariak hartzen ditugu kontuan.
- 2) Dimentsio bakar batean oinarritutako erantzunak eskaini edo ekintzak garatzen ditugu, baina beste dimentsio batzuetan eragin onak sortu ditzaketenean.
- 3) Gure bidelaguntza prozesu zabalagoaren parte da, eta, bertan, gurekin sarean lan egiten duten eta koordinatzen diren inguruko beste eragile eta zerbitzu batzuek esku hartzen dute. Azken kasu horretarako, funtsezkoa da koordinatzea, ikuspegia zein lan-plana zenbait eragileren artean partekatzea eta subjektuak parte hartzea, pertsonaren inguruko eskuhartzea koherentea hedatzeko. Ezin dugu ahaztu bizitza hobetzeko prozesua pertsonarena dela, bera da bere prozesuko subjektu nagusia, gainerakook laguntza baino ez garelako.



Hurrengo fluxugraman, pertsona oinarri duen bidelaguntza integralerako prozesua azaltzen da. Prozesu horretan, ondoren garatuko ditugun 5 une daude:

- 1.- HARRERA INTEGRALA
- 2.- EGOERAREN BALORAZIOA ETA EGIN BEHARREKO EKINTZEN PROPOSAMENA
- 3.- EKINTZEN GARAPENA
- 4.- PROZESUAREN JARRAIPENA
- 5.- BIDEAGUNTZAREN AMAIERA



5.1. HARRERA INTEGRALA. LEHENENGO UNEAK BADU ZERESANIK. HARRERAAREN GARRANTZIA.

Harrera Integrala edozein proiektutan egiten da, eta, bertan, lehenengo topaketa egiten da pertsonaren eta Caritasen artean, hau da, Caritasen sartzeko ateak diren arreta-zerbitzu guztietan. Harrera Integrala prozesuaren hasiera da, Bidelaguntzaren fase bat, lehenengo harreman hori non egiten den kontuan hartu gabe. Harrera Integralerako Zerbitzuan egin daiteke, baina gizarte zein eskola arloko edo enplegu-arloko laguntzarako proiektu batean edo tailer batean edo prestakuntzako ikastaro batean...

Beraz, honakoa da egin behar dugun lehenengo hausnarketa (eta erabakia): “sartzeko ate” moduan erabilitako eremu edo zerbitzu horiek zein diren eta, hortik aurrera, nola jarriko garen harremanetan eta Caritaseko proiektu guztietan nola lan egingo den lurralde bakoitzean eta elizbarruti-mailan arreta ematen duten gainerako zerbitzuekin.

Erakunde moduan Caritasera lehen aldiz hurbiltzen diren pertsonak hartzen dituen proiektua garenez (ez bakarrik lehen aldiz gure proiektura), hasieran dugun posizioa berezia da. Caritaserako atea izatea beste proiektu batzuekin (zenbait arlotakoak, erantzun desberdinak eskaintzen dituztenak...) partekatzen dugunez (bakoitzak bere zereginetik), pertsonaren eta Caritasen arteko lehenengo topaketa partekatzen dugu. Bidelaguntza Integralerako Ereduaren ikuspegitik, lehenengo topaketa hori, edonon egiten dela ere, “estilo” berberaz egin beharra dago.





Pertsonarekin egindako lehenengo topaketa hau garrantzi handikoa da. Hori dela eta, pertsonari harrera emateko artea garatzen saiatu behar gara. Elkarrizketa, konfiantza eta isilpekotasuna suspertzen dituen eremu fisikoa ez ezik, entzulearen jarrera fisiko, mental eta emozionala ere bada garrantzitsua, topaketa atsegina eta gizatiarra izan dadin.

Giza topaketarako une garrantzitsua da, eta, bertan, harrera ematen da, bete-betean entzuten da, arakatu egiten da eta alternatibak eskaintzeko ahalegina egiten da, pertsonaren dimentsio guztiak kontuan hartuta. Geure baliabideen eta, era berean, pertsonak eskatzen dizkiguten premien arabera bidelaguntza eskaintzen dugu.

Harrera Integralak bidelaguntza integralerako bidea urratzen du Laguntzarako Harremanaren bitartez. Horretarako, ez da nahikoa ondo egin nahi izatea, zeregin horretarako ere prestatu behar garelako, bertan pertsona helburu nagusia dela kontuan hartuta. Beraz, gure lanean, harremana gizatiartzen duten oinarrizko hiru jarrera izan behar ditugu bidelagun: baldintzarik gabeko onarpena, egiazkotasuna eta enpatia.

Bidelaguntzaren lehenengo urratsa lotunea eratzea da, borondatezko atxikimendua bermatzea. Konfiantzako harremana eratzea, lagundutako pertsonarentzat erreferentzia izatea, pertsona horrengatik modu pertsonalean nahiz profesionalen arduratuta dagoen norbait, alegia.

Laguntzarako harremanaren bidez, lotune hori suspertzen dugu gure bidelaguntza jasotzen dutenekin. Horretarako, haien autonomia errespetatzen dugu, eta konfiantza daukagu haien gaitasunetan, ezbeharrei aurre egiteko eta zailtasunak aukera bihurtzeko duten erresilientzian, besteak beste.

Harrera ematea **prozesu** da, ez “elkarrizketa” hutsa. Pertsona/familiarekin egindako zenbait topaketaren ostean eratzen da. Garrantzitsua da buru-belarri entzutea eta informazioa eskaintzea. Behar dugun informazioa arakatzeko, solas zuzena ezarriko dugu pertsonarekin (elkarrizketa), baina, era berean, beste iturri eta bide batzuen bitartez ere lortuko dugu informazioa, baita behaketa zuzenaren bidez ere (familiarri ez zaio dena galdetu behar, galde-sorta izango balitz bezala).

Harrera Integralak gure proiektura lehen aldiz hurbiltzen diren eta, aldi berean, Caritasera lehen aldiz sartzen diren pertsonak dauka helburu.

Horretarako, kontsultarako sistema ezarri beharra dago, gure proiekturako pertsona “berria” Caritaserako ere baden oro har. Horrela bada, “sartzeko ate” moduan abian jartzen dugu Harrera Integrala. Gure zerbitzurako bakarrik bada berria, berariazko harrera jartzen dugu abian, guk baino lehen artatu duenak harrera integrala eman diola eta gure proiekturako ere interesgarria den informazioa arakatuko zuela kontuan hartuta. Kasu horretan, pertsona/familiaren espedientearen agertzen dena kontsultatuko dugu, eta, ahal dela, ez dugu berriro galdetuko pertsonak aurretiaz eman digun informazioari buruz. Horretarako, SICCEko espedienteak izango da tresna nagusia.



Harrera integralaren helburuak

Hona hemen harrera integralaren bidez lortu nahi ditugun helburuak:

- 1) Caritasekin duen lehenengo harremanetik, pertsonak **entzun egiten diotela eta harrera ematen diotela sentitzea**. Horretarako, buru-belarri entzuteko denbora eta espazioa eskaintzen ditugu, eta hasiera-hasieratik zaintzen dugu laguntzarako harremana.
- 2) Pertsona/familiaren, bere bizitzako egoeraren eta jasaten ari den unearen begirada zabala eratztea. Harrera **dimentsio guztietan** ematea.
- 3) **Pertsonak** Caritasek, oro har, zer alderditan eta nola lagundu ahal dion jakitea.

Begirada horretatik:

- 4) Caritasek **bidelaguntzarik eskaini dezakeen ala ez jakitea** (gure proiektuaren edo beste batzuen bidez). Bidelaguntza integrala abian jartzeko ditugun aukerak eta premia baloratzea (Caritaseko edota inguruko beste proiektu batzuetako beste erantzun eta laguntza batzuk kontuan hartuta).
- 5) **Pertsonarekin adostea zein izan daitezkeen** beretzat eta bere familiarentzat egokienak diren erantzuna eta bidelaguntza.
- 6) Caritasek laguntzarik eman ezin badio, **beste aukera batzuetara bideratzea**.
- 7) Azaltzen duen egoerarako alternatibarik ez badago, ahalik eta modu onenean jakinaraztea **ez daukagula** horretarako **erantzunik eskaintzerik**.

Harrera integralaren hasiera eta amaiera

Gure proiektuaren bidez Caritasera lehen aldiz hurbiltzen den pertsonarekin (erakundearen "sartzeko atea" garelako) lehenengo topaketa daukagunean **HASTEN DA** Harrera Integrala.


Honako egoera hauetan **AMAITZEN DA**:

- Era bateko eta besteko dimentsioak kontuan hartuta, pertsonaren egoeraren ikuspegi orokorra daukagunean.
- Caritasetik bidelaguntza ematerik dugula dakigunean (gure proiektuaren bidez edota beste batzuekin batera).
- Pertsona bera ere Caritasen lekurtzen denean eta eskaintzen dizkion aukeren berri duenean.
- Pertsonarekin garatu beharreko prozesua adosten dugunean.





Harrera integralerako prozesuaren eskema



Nola garatzen dugu harrera integrala?

- Harrerarako denbora eta leku atsegin bezain konfiantzazkoa ezartzen dugu.
- Zer partekatu nahi duen entzuten dugu buru-belarri.
- Zer eskatzen digun, bere ustez zertan laguntzerik dugun (hasierako eskaera) bildu eta hortik abiatzen gara.
- Jakin beharreko gaiak jorratzen ditugu, eskaerarako erantzunen bat egituratu ahal izateko (Harrerarako aukeratuko dugun proiektuaren arabera). (Eranskinak: "Harrerara Integralerako galderak" eta "Buru-belarri entzuteko dekalogo").
- Eskaera horretatik abiatuta, geure begirada irekitzen dugu beste alderdi garrantzitsu batzuetara, harik eta egoeraren ikuspegi globala daukagun arte. Beti-beti, pertsonaren erritmoak eta partekatu nahi duena errespetatzen dugu. Helburua ez da galde-sorta egitea. Pertsonaren eta familiaren egoerari buruzko ikuspegi globala dugunean, honakoa jakingo dugu:
 - Nolako harremanak ea lotuneak dituen inguruarekin, egoerari aurre egiteko orduan bakarrik dagoen, laguntzarik daukan, adiskiderik duen, laguntzarako sareren bat duen...
 - Enplegurik daukan ala ez daukan; eduki badauka, nola doakion... (lehenengo une honetan, enpleguaren gaira hurbiltzen gara, beste gairik sortzen ez bada, aurrerago jakin ahal izango dugu zer beste arlotan ematen duen bere denbora; solasaldian

sortzen bada, kontuan hartzen dugu, bestela, geroko uzten dugu).

- Bere familia, nolako harremana duen berarekin, horri dagokionez inolako kezkarik duen.
- Bere bizi-baldintzak: behar beste diru-sarrerarik duen, bere eta bere familiaren oinarritzko premiei aurre egiteko...
- Inolako zailtasunik duen bere egoera administratiboarekin: egoera irregularrean dagoen, erroldatuta ez dagoen.
- Nola doakion osasunean.
- Geure laguntasunerako tresna informatikoa erabiltzeko eta eskuhartzea Caritaseko beste proiektu batzuekin (SICCE) partekatuzeko, datu batzuk beharrezkoak direnez, kontuan ere hartzen ditugu, eta informazio hori daukagun aztertzen dugu.

Une honetan, pertsonaren oinarritzko ikuspegi integrala daukagu (BIMen ikuspegitik pertsonaren dimentsioak kontuan hartuta):

- Ekonomikoa
- Etxebizitza
- Egoera administratiboa
- Enplegua/Okupazioa
- Prestakuntza
- Aisia
- Norberaren trebetasunak
- Familia
- Harremanak/Lotune komunitarioak
- Osasuna
- Itxaropena
- Espiritualtasuna/Tranzendentzia

Aisiarekin zein astialdiarekin lotutako gaiak eta itxaropenarekin nahiz espiritualtasun/transzendentziarekin lotutako gaiak bere sortzen badira, lehenengo une honetan biltzen ditugu, edo, bestela, zabalik uzten ditugu, kontuan hartzeko eta laguntasunerako prozesuan bertan biltzeko. Norberaren trebetasunekin lotutako gaiak ere geroko uzten dira, eta, horretarako, erabilgarriagoak dira informazioa zeharka antzemateko teknikak; behaketa, esaterako. (Eranskina: Informazioa biltzeko iturriak eta moduak). Horrez gain, harrera emateko orduan arakatzen ditugun dimentsio guztiek aurreragorako utziko ditugun alderdiak, ñabardurak dituzte. Jorratuz gero, bidelaguntza prozesuan jorratuko dira, edo, ostantzean, harrerarako aukeratutako proiektu zehatzarekin loturarik badute, baina pertsonari eta bere egoerari lehenengo begirada irekia botatzeko orduan "beharrezkoak" ez badira (zenbait alderdi ditugu hizpide; esate baterako, prestakuntza-maila, trebetasun sozialak, partaidetza...).

Harrera integralaren amaiera

- **PERTSONAK EZIN IZANGO DU GURE PROIEKTUKO LAGUNTASUNIK JASO:** era arrazoituan itzuliko diogu zergatik, beti-beti zainketa eta entzunaldia kontuan hartuta. Gainera, Caritaseko beste proiektu batean edo beste zerbitzu batean bidelaguntza eman ahal diotela ikusten badugu, aukera horien berri eman eta bideratu egiten dugu (ez dugu "nora ezean" uzten).
- **LAGUNTASUNERAKO PLANA EZARTZEN DUGU BERAREKIN.**
 - **PERTSONA/FAMILIA BIDELAGUNTZA JASOTZEN HASTEN DA GURE PROIEKTUTIK, Bere egoeraren arabera egokiena den erantzuna jartzen dugu abian. Laguntza gehiago behar ez badu** (edo une honetan eskaini ahal diogun bakarra bada), pertsonak gure zerbitzuan bakarrik jarraituko du, eta ahalik eta bidelaguntza integralena eskainiko diogu geure aukeren bidez.
 - **Pertsona/familiak Caritaseko beste proiektu batzuetako bidelaguntza eskatzen badu eta guk geuk hori ematerik badugu:** Caritaseko zenbait proiekturen artean partekatutako laguntasun integrala jartzen dugu abian.
 - **Beste erakunde batzuen laguntzak eskatzen baditu,** haiekin harremanetan jartzen saiatzen gara, eta baterako lana garatzen dugu, leku bakoitzaren, proiektu bakoitzaren... aukeren arabera.





Nahiz eta gure proiektuan bakarrik jarraitu edo Caritaseko zenbait proiekturen artean edo inguruko beste batzuekin batera bidelaguntza jaso, BALORAZIOAREN unea garrantzitsua da. Horrelako egoeran bidelaguntza emateko zer egin dezakegun pentsatu eta pertsona/familiarekin adosten dugu laguntasunerako plana.

5.2. BANAKAKO BIDELAGUNTZAREN IBILBIDEA

“Harrera Integralean”, BIMek proposatzen duen metodologiaren arabera pertsonak edo familiak bidelaguntza jasoko duela ezartzen denean, **banakako bidelaguntzaren ibilbideari** ematen diogu hasiera, eta, bertan, honakoa kateatzen da: balorazioa - banakako plana - jarduerak - jarraipena - azken balorazioa.

Aurretiko elementuak

- Abiapuntu moduan hartzen dugu harrera integralaren **helburuak** bete direla eta zehaztu egin dela pertsona edo familia batek bere hobekuntzarako ibilbidean bidelaguntza jaso dezakeen.
- Bidelaguntza emango duen **taldea** eta **erreferentziako pertsona** izendatu beharko ziren.
- Pertsonak **lan-plana** adostu beharko zuen, esanahiaren eta alderdiei eskatutakoaren baldintzak zein diren jakinda.
- Erreferentziako laguntzailea edo laguntzaileak elkarrizketa bat edo batzuk eduki beharko zituzten, eta, bertan, pertsona/familiaren egoerari buruzko beharrezko informazioa bildu beharko zuten. Horretarako, **bidelaguntzaren fitxa** erabiliko dute, bertako atal guztiak kontuan hartuta. Informazioa biltzeko eta aztertzeko erreferentziako eskema BIMeko **balorazioaren fitxan** zehazten dena da.
- Datuak biltzeko prozesuan, pertsonaren interesak ere arakatuko dira eta apurka-apurka zenbait zeregin edo helburu bere gain hartzeko prest dagoen. Kasuak/eskuhartzea mahaian aurkeztu baino lehen, pertsonarekin zenbait gai **adostu** behar izan dira **aurretiaz** bere uestezko **lan-ibilbideari** buruz.


Garatu beharreko prozesuan, faseetan sailkatzen diren hobekuntza-urrats txikiak kateatzen dira. Faseek 4na elementu dituzte (BPJJ):

1. **Balorazioa:** pertsonaren egoera eguneratzea.
2. **Plana:** lortu beharreko helburuak lantzea eta adostea.
3. **Jarduerak:** proposatutako jarduerak eta zereginak garatzea.
4. **Jarraipena:** motibaziorako, orientaziorako... bitarteko bidelaguntza ematea.

6 hileko gutxieneko epealdia zehazten da fasearen helburuak lortzeko, eta helburu horiek errazak, lortzeko modukoak eta zehatzak izango dira. Epea betetakoan (beharrezkoa izanez gero, pertsona bakoitzaren erritmora egokitzeko asmoz zehazten diren luzapenak kontuan hartuta), fase berri bat hasten da (BPJJ).



Laguntza-ibilbide pertsonalizatuaren prozesua



5.2.1. BALORAZIOA³:

Orotarikoak

Balorazioak **eginkizun bikoitza** izango du:

- Batetik, banakako programazioan sartu beharko diren **lan-arlo** garrantzitsuenak **zehazteko eta lehenesteko** erabiltzen da.
- Bestetik, zenbait arlotan edo dimentsiotan, pertsona **zer egoeratik abiatzen den zehazteko** aukera ematen digu, egindako lan-prozesuaren bidez lortutako **aurrerakuntzak** eta hobekuntzak **kuantifikatzeko** gai izan gaitezten.
- **Elkarrekin lotutako bi gai baloratzen ditugu:** pertsonak dimentsio pertsonal bakoitzari dagokionez daukan **egoera** eta dimentsio bakoitzarekin lotutako **giza eskubideak eskuratzeko eta aitortzeko maila**.

Erreferentziako oinarrizko eskema **balorazioaren fitxan** agertzen da.

Baloraziorako eta laguntasun integralerako prozesuaren ibilbidearen gaineratikorako, harrera integraletik prozesuaren amaierara arte, tresnak/fitxak eskuragarri daude paperean, baita SICCE/MIS ere. Izan ere, azkenean, bertan bilduko da pertsonarekin egiten den lan guztia. Horretarako, eskuhartzea zuzenean erregistratuko da aplikazioan, edo, lehenengo eta behin, paperezko fitxak erabili eta familiaren espediente informatuan (SICCE/MIS) sartuko dira ondoren.

Balorazioa egiteko (hasierakoa nahiz jarraipenerakoak), ustezko **5 fase** zehaztu ditugu, eta, bere dimentsio pertsonal bakoitzean, pertsona pairatzen egon daitekeen inguruabar-motaren adierazgarri dira. Izan ere, guretzat oso lagungarriak izan daitezke bere bititza unea azaltzeko eta geure laguntasunean orientatzeko orduan. Norberaren dimentsioak Caritaseko Gizarte Ekintzarako Ereduan adierazitako hasiera-faktoreekin daude lotuta.

³ SICCE-MIS baliatuko dugu (ibilbideen erlaitza) hasierako balioespina, lan-plana eta jarraipen-balioespenak egiteko. Eranskinean eskuliburu bat dago, eta bertan azaltzen da nola erabili SICCE-MIS sistema horretarako.





Dimentsio bakoitzean, 1-5 puntu emango zaizkio pertsona bakoitzaren egoerari, balorazioaren fitxan nahiz eskuliburuan zehaztutako irizpideen arabera. Puntuazioa emateko orduan, pertsona bakoitzaren egoera eta eskubideak eskuratzeko maila hartzen ditugu kontuan. Horren bidez, profila egin eta lanerako lehentasunezko gaiak zehazten ditugu, eta banakako programazioan lehendabizi jorratuko ditugunak izango dira.

Agiri honetan, egoera orokorraren balorazio-taulak eta norberaren dimentsio bakoitzaren taulak erantsi ditugu, eta, bertan, adierazi egiten da zer egoera-motak izango lirartekeen fase bakoitzekoak. Bertan, hain zuzen ere, gizarte-bazterketa handieneko egoera izango da 1a; eta erabateko inklusio sozialeko egoera, 5a.

PERTSONAREN EGOERAREN BALORAZIO INTEGRALERAKO TRESNA

BALORAZIO OROKORRAREN FITXA

Ereduak taula hauek proposatzen ditu pertsonak dimentsio bakoitzean duen abiapuntu egoera zein den baloratzen lagunduko diguten tresna moduan, ikuspegi bikoitzetik: erreferentziako neurritzat jotzen ditugun zenbait parametroren arabera duen egoera eta eskubideen urraketak antzemateko begirada.

Giza eskubideen begirada kontuan hartzen dugunean, honakoa galdetu behar diogu geure buruari:

- Badago eskubidea aitortzen duen arau juridikorik?
- Eskakizun hauek betetzen ditu: erabilgarritasuna, eskuragarritasuna, moldagarritasuna eta onargarritasuna?
- Urraketaren bat antzematen badugu, erregistratu egiten dugu, urraketak beste eskubide batzuetan eraginik duen begiraten dugu (eskubideen elkarrekiko menpetasuna eta banaezintasuna) eta zera galdetzen diogu geure buruari:
- Badugu pertsonari laguntasunik ematerik eskubide horren erabileran?
- Badugu egoera horren inguruan sentsibilizatzerik? Interesdunekin, beste eragile batzuekin?
- Badugu erakundearen bertan eraginerako prozesurik abian jartzerik?

EGOERA						ESKUBIDEAK					
DIMENTSIOA	BALORAZIOA					DIMENTSIOA	BALORAZIOA				
EKONOMIKOA	1	2	3	4	5	EKONOMIKOA	1	2	3	4	5
ETXEBIZITZA	1	2	3	4	5	ETXEBIZITZA	1	2	3	4	5
ADMINISTRAZIOA	1	2	3	4	5	ADMINISTRAZIOA	1	2	3	4	5
PRESTAKUNTZA	1	2	3	4	5	PRESTAKUNTZA	1	2	3	4	5
ENPLEGUA	1	2	3	4	5	ENPLEGUA	1	2	3	4	5
TREBETASUNAK	1	2	3	4	5	TREBETASUNAK	1	2	3	4	5
AISIA	1	2	3	4	5	AISIA	1	2	3	4	5
HARREMANAK	1	2	3	4	5	HARREMANAK	1	2	3	4	5
FAMILIA	1	2	3	4	5	FAMILIA	1	2	3	4	5
OSASUNA	1	2	3	4	5	OSASUNA	1	2	3	4	5
ITXAROPENA	1	2	3	4	5						
ESPIRITUALTASUNA	1	2	3	4	5						

Dimentsio bakoitzean, pertsona zer fasetan dagoen zehazteko, dimentsio bakoitzerako zabaltzen den balorazio-taula ezartzen dugu, puntuaziorako eskema berbera kontuan hartuta.

DIMENTSIO EKONOMIKORAKO BALORAZIO-TAULA

BALORAZIORAKO JARRAIBIDEAK

Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsaleko 25. artikuluan, ongizaterako eskubidea aitortzen da: elikagaiak, etxebizitza, laguntza medikoa, jantziak eta txirotasunerako oinarrizko beste gizarte-zerbitzu batzuk... EAEn, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legea da eskubide hori neurri batean aitortzen duena.

Egoera baloratzeko orduan, **DSBE prestazioaren** zenbatekoa erabiliko dugu (kasuan kasuko familia-unitatearen diru-sarrerak bermatzeko errenta, bertako kideen kopuruaren arabera), **diru-sarreren mailan ebaluazioa edo diagnostikoa egiteko oinarri moduan**. Prestazio hori Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemara dago atxikita, eta, urteetan, hileko prestazio ekonomikoa izan da, nahikoa baliabiderik ez duten pertsonen eta familien oinarrizko premiei aurre egiteko.

Egoera ekonomikoaren balorazioan kontuan hartu beharreko beste elementu batzuk pertsonaren edo familia-unitatearen gastu finkoak edota egonkorak dira; esate baterako, etxebizitza (alokairua, hipoteka eta hornikuntzak), prestakuntza-hezkuntza (adingabeekin lotutakoak eta beste sistema batzuen bidez estaltzen ez direnak barne), helburu zehatz baterako jarraikako garraioa (tratamendu medikoa, prestakuntza...)... Izan ere, lagungarriak izan daitezke pertsonak edo familiak aurrezkoa sortzeko duen gaitasuna baloratzeko orduan, ezusteko egoerei edo inguruabarrei erantzuna eman ahal izateko (matxurak edo etxebizitzan beharrezkoak diren obrak, gaixotasun baten gastuak...).

EGOERA		ESKUBIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> Ez du diru-sarrerarik. 	1	<ul style="list-style-type: none"> Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen (gutxieneko errentak, pentsioak eta antzeko prestazioak)- Ez dago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. 	1
<ul style="list-style-type: none"> DSBEren zenbatekoaren %50eraino. Oinarrizko premien estaldura behar bestekoa ez izatea. 	2	<ul style="list-style-type: none"> Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. 	2
<ul style="list-style-type: none"> DSBEren %50 baino gehiago eta DSBEra iritsi gabe. Oinarrizko premien estaldura. Ez zaie ezusteko gastuei aurre egiten. Ez dago aurrezkirik. 	3	<ul style="list-style-type: none"> Eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen dira. Aitortutako eskubidea. Eskubideak eskuratzeko prozesuan. Izapidetzan. Gorabehera nabariak daude praktikan eskuratzeko orduan. 	3
<ul style="list-style-type: none"> DSBEtik DSBEren halako biraino. Ezusteko gasturen bati aurre egin ahal zaio. Gutxieneko aurrezkia. 	4	<ul style="list-style-type: none"> Aitortutako eskubidea. Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. Ez dago gorabehera nabaririk eskuratzeko eta praktikan ezartzeko orduan. 	4
<ul style="list-style-type: none"> DSBEren halako bi baino gehiago. Ezusteko gastuei aurre egiteko aukera. Aurrezteko gaitasuna. 	5	<ul style="list-style-type: none"> Eskubidea aitortu eta eskuratu egiten da babes ekonomikoaren dimentsioan. Erreklamatzeko gaitasuna, behar izanez gero. 	5

ETXEBIZITZAREN DIMENTSIORAKO BALORAZIO-TAULA

BALORAZIORAKO JARRAIBIDEAK

Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsaleko 25. artikuluan, ongizaterako eskubidea aitortzen da: elikagaiak, etxebizitza, laguntza medikoa, jantziak eta txirotasunerako oinarrizko beste gizarte-zerbitzu batzuk...

EAEn, Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legea da eskubide hori neurri batean aitortzen duena.



Familiak etxebizitzari dagokionez duen egoera baloratzeko orduan, ETHOS tipologia europarra hartuko dugu oinarritzat, etxegabetasun/bizitoki-bazterketaren errealitateak pertsonen eta familien bizitoki-egoeraren arabera sailkatzen dituelako etxebizitza egokirako giza eskubidearen eskurapenari dagokionez, etxerik gabekoak, etxebizitzarik gabekoak, etxebizitza desegokidunak eta segurua ez den etxebizitzadunak kontuan hartuta.

EGOERA		ESKUBIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> Eremu publikoan bizitzea (helbiderik gabe). Gaua aterpetxean ematea edota egunaren gaineratikoa eremu publikoan igarotzera behartuta egotea. aldi baterako egituran edo txabolan bizitzea. 	1	<ul style="list-style-type: none"> Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. Ez dago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. 	1
<ul style="list-style-type: none"> Estatuko legeriaren arabera desegokia den, osasunaren kalterakoa den eta oinarritzko ekipamendurik ez duen etxebizitzan bizitzea. Zerbitzuetako zentroetan edo aterpeetan egotea (etxegabeei zenbait egonaldi-eredu eskaintzen dizkieten ostatuak). Etorkinentzako eta asilo-eskatzailleentzako aldi baterako bizitokietan bizitzea. Legezko titulurik gabeko etxebizitzan bizitzea (nahi gabe senideekin edo adiskideekin aldi baterako bizitzea, alokairu-kontraturik gabeko etxebizitzan bizitzea -okupak kontuan hartu barik-...). Nora joan eduki gabe, instituzioetan bizitzea: espetxeak, osasun-arretarako zentroak, ospitaleak... Jendez betetako etxebizitzan bizitzea. 	2	<ul style="list-style-type: none"> Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. 	2
<ul style="list-style-type: none"> Indarkeriako emakume biktimentzako aterpetxeetan bizitzea. Tutoretzapeko bizitokia, aldi baterako egoitza-zerbitzu soziala. Kontraturik gabeko logela. Oztopo arkitektonikoak edo oinarritzko ekipamenduan gabeziaren bat dituen etxebizitza. Etxebizitza uzteko legezko jakinarazpena. 	3	<ul style="list-style-type: none"> Eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen dira. Aitortutako eskubidea. Eskubideak eskuratzeko prozesuan. Izapidetzan. Gorabehera nabariak daude praktikan eskuratzeko orduan. 	3
<ul style="list-style-type: none"> Etxebizitza partekatua. Kontratudun logela. Aldi baterako pisua. Tutoretzapeko bizitokia, egoitza-zerbitzu sozial iraunkorra. 	4	<ul style="list-style-type: none"> Aitortutako eskubidea. Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. Ez dago gorabehera nabaririk eskuratzeko eta praktikan ezartzeko orduan. Etxebizitzako premietarako prestazioak eskuratzeko (GLL, EPO...), 	4
<ul style="list-style-type: none"> Etxebizitza autonomia eta egonkorra (eta baldintza egokietan). 	5	<ul style="list-style-type: none"> Etxebizitzarako eskubidea aitortu eta eskuratu egiten da. Erreklamatzeko gaitasuna, behar izanez gero. 	5

DIMENSIO ADMINISTRATIBORAKO BALORAZIO-TAULA

BALORAZIORAKO JARRAIBIDEAK

Adierazpen Unibertsalean, dimensio honekin lotutako artikulua asko daude; esate baterako, izena eta nazionalitatea edukitzeko eskubidea (6.a eta 15.a), justiziaz tratatua izatearen eskubidea (8.a eta 10.a), inork ez baztertzeko eta bereizteko eskubidea (2. artikulua) eta migratzeko eta asiloa eskatzeko eskubidea (13. eta 14. artikulua).

Eskubide horiek babesten dituzten zenbait arau juridiko daude; esate baterako, egoera administratiboari buruzko legeria (Estatukoa):

- 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide zein askatasunei eta haien integrazio sozialari buruzkoa.
- 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, asilorako eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen.

Geure nortasuna egiaztatzea ezinbestekoa da izapideak egiteko orduan; esate baterako, erroldatzea, osasun-txartela eskatzea edo bankuko kontua irekitzea, zenbait adibide jartzearren. Espainiako nazionalitatea dutenek Nortasun Agiri Nazionala edukitzeko eskubidea dute. Eskubide hori betebeharra ere bada Espainian bizi diren hamalau urtetik gorakoentzat eta, adin berekoak izanda, atzerrian bizi eta sei hiletik beherakoa ez den epealdirako estatura lekualdatzen direnentzat. Nortasun Agiri Nazionala agiri publiko ofizial, pertsonal eta besterenezina da, Barne Ministerioak egiten du eta, berez, behar besteko balioa dauka bertan adierazitako titularraren nortasuna, datu pertsonalak eta nazionalitate espainiarra egiaztatzeko.

Atzerritarren kasuan, haien nortasuna egiaztatzen duen agiria (pasaporte, oro har) nahikoa da, egoera administratibo irregularrean daudenei aitortzen zaizkien eskubide batzuk erabiltzeko: eskolaratzea, desgaitasunaren balorazioa eskatzea edo Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eskatzea. Edonola ere, atzerritarrek lan egiteko aukera izan dezaten, euren familiak berriro elkartu ditzaten edo Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera jaso dezaten, besteak beste, Espainian legez bizitzeko eta lan egiteko baimena ematen dien agiria ere eduki behar dute. Gainera, aipatutako kasu gehienetarako aurretiko izapide moduan, errolda ere eskatzen zaie, eta udalerrian bizi direla eta euren ohiko helbidea bertan dutela frogatzen du.

Kontuan hartu behar dugu atzerritarrei ezartzen zaien legeria desberdina dela une horretan zein egoeratan dauden kontuan hartuta (Atzerritarrei buruzko Legea, Asiloari buruzko Legea, EBko Herritarrei eta Haien Senideei buruzko Errege Dekretua eta Aldi Baterako Babesari buruzko Errege Dekretua). Beraz, estatuan duten bizilekua eta nortasuna egiaztatzen dituzten agiriak ere desberdinak izan daitezke kasuan-kasuan.

EGOERA		ESKUBIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko agiririk ez edukitzea (NAN, AIZ, OTI, pasaporte). • Egoera administratibo irregularra (Atzerritarrei buruzko Legea) / Polizian nazioarteko babes eskatzeko hitzordurik gabe (Asiloari buruzko Legea). • Erroldatu gabe. 	1	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. • Bankuko konturako eskubiderik gabe. • Ez dago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. 	1
<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko agirien izapideak egiten (NAN, AIZ, OTI, pasaporte). • Beste agiri gehigarriak ez edukitzea. • Erregularizatzeko prozesuan (Atzerritarrei buruzko Legea). • Nazioarteko babesaren eskatzaile moduan aitortzen duen agiria (lan egiteko baimenik gabe). • Bizileku duten ez beste helbide batean erroldatzea. 	2	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. • Bankuko konturako eskubiderik gabe. • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. 	2
<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko agiriak behar bezala edukitzea (NAN, AIZ, OTI, pasaporte). • Bizileku-baimena. • Nazioarteko babesaren eskatzaile moduan aitortzen duen agiria (lan egiteko baimena). • Gizarte-zerbitzuengatik errolda. 	3	<ul style="list-style-type: none"> • Eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen dira. Aitortutako eskubidea. • Eskubideak eskuratzeko prozesuan. Izapidetzan. • Gorabehera nabariak daude praktikan eskuratzeko orduan. • Bankuko kontua, baina gorabeheraz, desberdintasunez betetakoa, herritar guztien aldean. 	3





<ul style="list-style-type: none"> • Agiriak behar bezala edukitzea. • Aldi baterako edo luzaroan bizitzeko eta lan egiteko baimena. • Errefuxiatuen estatutua edo babes subsidiarioaren estatutua. • Bizileku duen helbidean erroldatuta egotea. 	4	<ul style="list-style-type: none"> • Aitortutako eskubidea. • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. • Ez dago gorabehera nabaririk eskuratzeko eta praktikan ezartzeko orduan. • Bankuko konturako eskubidea eta sarbidea. 	4
<ul style="list-style-type: none"> • Nazionalitatea. 	5	<ul style="list-style-type: none"> • Eskubide administratiboak aitortu eta eskuratu egiten dira. • Bankuko konturako eskubidea. • Gorabeherarik egonez gero, erreklamatzeko gaitasuna. 	5

PRESTAKUNTZAREN DIMENTSIORAKO BALORAZIO-TAULA

BALORAZIORAKO JARRAIBIDEAK

Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsaleko 26. artikuluan aitortzen da hezkuntzarako eta nortasuna askatasunez garatzeko eskubidea.

Zenbait arau juridikok babesten dute eskubide hori:

ESTATUKO ARAUTEGIA

ESPAINIAKO KONSTITUZIOA. Espainiako Konstituzioko 35. artikuluan xedatzen denez, «lan egiteko betebeharrak eta behar besteko eskubidea lan egiteko, lanbidea edo ogibide askatasunez aukeratzeko, lanaren bidez sustatzeko eta norberaren zein familiaren premiak estaltzeko behar besteko ordainsaria jasotzeko (...)». Bestetik, 40. eta 41. artikuluetan adierazten denez, botere publikoek derrigorrean egin behar dute «erabateko enplegua helburu duen politika» (40.1. artikulua), eta «profesionalak prestatu eta berregokitu egiten direla bermatzen duen politika» (40.2. artikulua) sustatu behar dute.

EAE-KO ARAUTEGIA

Euskadirako Autonomia Estatutua (EAE). Euskadirako Autonomia Estatutuko 9. artikularen arabera, euskal botere publikoek, euren eskumenen esparruan, behar besteko politika sustatu behar dute, bizi-baldintzak zein lan-baldintzak hobetzeko eta enpleguaren zein egonkortasun ekonomikoaren gehikuntza sustatzeko.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 3/2011 LEGEKO 2. artikuluan xedatzen denez, Lanbide kalitateko enplegu egonkorerrako eskubidea bete-betean garatzen laguntzea du helburu.

18/2008 Legean, zenbait ekintza azaltzen dira, hezkuntzako nahiz prestakuntzako jakintza berriak eskuratzeko beharrezkoak diren jarrerak zein ohiturak eta prestakuntza arautuko edo arautuko gabeko berariazko jarduerak garatu ahal izatearen eta, horrela, abiapuntuak prestakuntza-maila edo eskuratutako trebetasun profesionalak ekoizpen-sistemaren premietara egokitu ahal izatearen.

Gero eta gehiagotan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arteko muga hain argia ez bada ere, hezkuntzaren bidez, pertsonak funtsean eskuratzen du behar besteko gaitasuna, arrazoitzeko, ikasteko eta balioen sistemaren bidez epaitzeko. Gainera, prestakuntzaren bidez, behar besteko trebetasunak edo gaitasunak eskuratzen dira, lan zehatz bat garatzeko.

Jakintzak edo ikaskuntzak eskuratzeko aukera ematen duten jarduerak guztiak (tailerrak, taldeko jarduerak...) ezin dira prestakuntzat hartu. Prestakuntzaz ari garenean, ebaluazio-sistemaren bidez (ez dauka idatzia zertan izan, behaketan oinarritu daitekeelako) egiaztatzen dira prestakuntza horren helburuetan zehaztutako eta eskuratutako gutxieneko trebetasunak/

ikasbideak. Horrez gain, prestakuntza kualifikatzailea edo ez-kualifikatzailea izan daiteke. Kualifikatzailea izatearen, egiaztatzen duen erakunde ofiziala egon behar da (esate baterako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza).

Zenbat eta handiagoa izan hezkuntza/prestakuntza maila, orduan eta txikiagoa da gizarte-bazterketarako aukera, eta, horren ondorioz, egonkorragoa da integrazioko eremu sozialean dugun iraupena. Hori horrelaxe da, zenbait eta gehiago handitu pertsona batek maila hori, orduan eta gehiagotan eta hobeto laneratzen delako eta epealdi laburragoan irteten delako langabeziatik, langabezia egonez gero.

Edonola ere, norbaitek dimentsio honi dagokionez daukan egoera baloratzeko, sailkapen zehatzaren arabera bildu behar da bere maila, baina, horrez gain, hezkuntzako edota prestakuntzako sisteman sartzeko duen aukera ere egiaztatu behar da.

EGOERA		ESKUBIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> Erabateko analfabetismoa edo funtzionala. 	1	<ul style="list-style-type: none"> Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. Ez dago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. Prestakuntza ez dago homologatuta. 	1
<ul style="list-style-type: none"> Amaitu gabeko lehen mailako ikasketak edo antzekoa. Lanaren aurretiko trebakuntza. 	2	<ul style="list-style-type: none"> Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. 	2
<ul style="list-style-type: none"> Derrigorrezko oinarrizko titulazioa (OHO, DBH). Sorterriko oinarrizko prestakuntza homologatuta edukitzea ala ez. Enplegurako prestakuntza eta 1.-2. mailako ziurtagiria. 	3	<ul style="list-style-type: none"> Eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen dira. Aitortutako eskubidea. Eskubideak eskuratzeko prozesuan. Izapidetzan. Gorabehera nabariak daude praktikan eskuratzeko orduan. Homologatzeko izapidea. 	3
<ul style="list-style-type: none"> Batxilergoa / 1. LH. Gradu ertaineko prestakuntza-zikloak. Sorterriko prestakuntza baliokidea homologatuta edukitzea ala ez. Enplegurako prestakuntza eta 3. mailako ziurtagiria. 	4	<ul style="list-style-type: none"> Aitortutako eskubidea. Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. Ez dago gorabehera nabaririk eskuratzeko eta praktikan ezartzeko orduan. Prestakuntzaren homologazioa. 	4
<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitateko titulazioa. Goi-gradu prestakuntza-zikloak (2. LH). Goi-gradu prestakuntza-zikloak. Sorterriko prestakuntza baliokidea homologatuta edukitzea ala ez. 	5	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntzarako eskubidea aitortu eta eskuratu egiten da. Jabekuntza eta erreklamatzeko gaitasuna, behar izanez gero. Prestakuntzaren homologazioa. 	5

ENPLEGUAREN DIMENTSIORAKO BALORAZIO-TAULA

BALORAZIORAKO JARRAIBIDEAK

Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsaleko 22. eta 25. artikuluetan, ongizate, elikagai, etxebizitza, txirotasun... arloko arazorik gabe bizitzeko eskubidea aipatzen da.

Zenbait arau juridikok babesten dute eskubide hori:

ESTATUKO ARAUTEGIA

3/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Enpleguari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena. Bertan, aitortu egiten da langabetuek enplegurako laguntza aktiborako eskubidea dutela eta hori enpleguko zerbitzu publikoentzako betebeharra dela. Gainera, orientazioa eta prestakuntza dira enplegurako aktibazio-politiken ardatzetako bi.



**EAE-KO ARAUTEGIA**

Honakoa aitortzen da 2022ko urtarrileko Enpleguari buruzko Euskal Legearen Aurreproiektuko 8. artikuluan: a) banakako eta jarraikako laguntza egokirako eskubidea; b) enplegarritasunari buruzko banakako diagnostikorako eskubidea; c) banakako enplegu-plan integratua egiteko eskubidea; eta d) lanean prestatzeko eskubidea.

Nahiz eta historiari begira enplegua eskuratzea inklusiorako ahalmen eta egonkortasun handieneko faktoreetako bat izan den, gaur egun ez du halakorik bermatzen, arrisku handiko egoeretatik eta zaurgarritasunetik aldentzeko bidez zuzenena izan ohi bada ere. Lan-merkatuaren gaur egungo baldintzen ondorioz, inklusiorako zeukan gaitasunaren zati handiena galdu du. Dena dela, oraindik ere, funtsezko elementua da pertsonen bizimoduan, eta hainbat lotune zuzen ditu gainerako dimentsioekin, baliabide ekonomikoak, harreman sozialak eta ongizate pertsonala ematen dituelako, trebetasun sozio-pertsonalak eskuratzeko erraztasunak ematen dituelako, aisialdirako eta familiaren zainketarako aukerak areagotzen dituelako eta, era berean, normalizazio administratiborako bidea ere izan daitekeelako. Hala ere, horretarako, lan txukuna edo lan duina izenekoaren gutxieneko baldintzetan eskuratu beharko da enplegua.

Hori dela eta, pertsona enpleguari dagokionez zer egoeratan dagoen baloratzeko, nola laneratzen ari den eta zer baldintzatan laneratu den kontuan hartuko dugu, batez ere.

EGOERA		ESKUBIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Iraupen luzeko langabezia (> 2 urte). • Jarduera marjinala. Jarduera ilegalak edo alegalak, diru-sarrerak sorrarazi arren lan-merkatuan kokatuta ez daudelako. • Ez-aktiboa. 	1	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. • Ez dago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. Aitortutako eskubiderik gabe. • Enplegurako eskubidea eta lan-eskubideak eskuratzeko aukerarik gabe. • Ez da lan-baldintzarik, hitzarmenik ezartzen. • Ez dira lan-baldintzak ezagutzen. • Bateragarritasunerako baliabideak eskuratzeko aukerarik gabe. Ez dago bateragarritasuna eskubidea den kontzientziarik. 	1
<ul style="list-style-type: none"> • Langabezia (< 2 urte). • Ekonomia informala. • Azpienplegua. Kontraturik gabeko eta Gizarte Segurantzarik gabeko lana, enplegatzailearen irizpidearen arabera inposatutako lan-baldintzak, gutxieneko soldatatik beherakoak diren soldatak. 	2	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. • Bateragarritasunerako baliabideak eskuratzeko aukerarik gabe, baina familia-sareak edota sare sozialak bateragarritasunerako tarteka emandako laguntzak. 	2
<ul style="list-style-type: none"> • Lan-egonkortasuna (hilabete baino gutxiago eta eguneko 3 ordu baino gutxiago). • Enplegua ezegonkorra izatea. 	3	<ul style="list-style-type: none"> • Eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen dira. Aitortutako eskubidea. • Eskubideak eskuratzeko prozesuan. Izapidetzan. • Gorabehera nabariak daude praktikan eskuratzeko orduan. • Bateragarritasunerako familiaren laguntza edota laguntza sozial egonkorra eskuratzeko aukera. Baliabide publikoak neurri batean eskuratzeko aukera. Laneko bateragarritasunerako eskubideak oso neurri txikian eskuratzeko aukera. 	3

<ul style="list-style-type: none"> • Aldi baterako enplegu duina eta txukuna. 6 hilabetez. 	4	<ul style="list-style-type: none"> • Aitortutako lan-eskubideak. • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. • Ez dago gorabehera nabaririk eskuratzeko eta praktikan ezartzeko orduan. • Bateragarritasunerako baliabide publiko zein pribatuak eta laneko bateragarritasunerako eskubideak era normalizatuan eskuratzeko aukera. 	4
<ul style="list-style-type: none"> • Lan duina/txukuna. • Enplegu egonkorra edukitzea (duina eta txukuna). 	5	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu duinerako eskubidea eta lan-eskubideak aitortu eta eskuratu egiten dira. • Jabekuntza eta erreklamatzeko gaitasuna, behar izanez gero. • Bateragarritasunerako baliabide publiko zein pribatuak eta laneko bateragarritasunerako eskubideak ohikotasunez eskuratzeko aukera. Lana zein familia bizitza pertsonal eta sozialarekin ere bateragarri egiteko aukera. 	5

TREBETASUN SOZIO-PERTSONALEN DIMENTSIORAKO BALORAZIO-TAULA

BALORAZIORAKO JARRAIBIDEAK

Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsaleko 26. artikuluan aitortzen da hezkuntzarako eta nortasuna askatasunez garatzeko eskubidea.

Diru Sarreren Bermeari eta Gizarte Inklusioari buruzko 18/2008 Legean xedatzen denez, “ekintzek behar besteko trebetasunak nahiz gaitasunak garatzea izan behar dute helburu, norberaren egonkortasuna, elkarbizitzako oreka eta inklusio zein partaidetza soziala sustatzeko, baina elkarbizitzako ohiko ingurunean, batez ere”.

Trebetasun pertsonal eta sozialekin zerikusia duten alderdien azalpena luzea da. Gure hizpideari buruzko ikuspegi laburtua eta argitua eduki ahal izatearen, esan egin dezakegu trebetasun sozio-pertsonalez ari garela honakoa baloratzen dugunean: ikaskuntza (aurreikuspenak, gaitasunak, mugak), komunikatzeko trebetasunak, beste batzuekiko harremanak eta autokontzeptua.

Xehetasun handiagoak eskaini nahian, honakoak trebetasun pertsonalak direla esango dugu:

- Norberaren ezagutza. Autokontzeptua: buru-estimua, norberaren zainketa, afektuen bizipena.
- Informazio interesgarria bilatzea, ulertzea eta horri buruzko azterketa egitea.
- Arreta, ulerkuntza, memoria eta ikaskuntza garatzea.
- Irakurmena eta idazmena garatzea.
- Jakintza eta erabilera digitala.
- Aldatzeko motibazioa.

Izaten, egiten, ezagutzen eta hobetzen ikastea.

Gainera, honakoek zerikusi handiagoa dute trebetasun sozialekin:

- Komunikatzea: hizkuntza jakitea, entzuten jakitea, bestearen lekuan jartzea, segurtasunez eta errespetuz adieraztea.
- Taldean moldatzea. Arauak, dinamikak, zereginak.
- Zailtasunei eta ezustekoei emandako erantzuna. Konponbidea.
- Elkarrekin hitz egiten eta adostasunak lortzen ikastea.





Azken horiek eta autonomiaren, erantzukizunaren zein egokitzapenaren balorazioa ere badira garrantzitsuak pertsonak lan-testuinguruan nola moldatzen diren sakonago aztertzeko orduan.

Honakoak izango lirateke trebetasun sozio-pertsonalen arlo honekin lotutako eskubide batzuk: helduen hezkuntzarako eskubidea, arautu gabeko trebetasun tekniko eta digitalak ikasteko eskubidea, trebetasunetan trebatzeko eskubidea eta irisgarritasunerako zein prozesu kognitiboen hobekuntzarako eskubidea.

EGOERA		ESKUBIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Ez dauka trebetasun sozialik eta pertsonalik. • Komunikazio-hizkuntzan komunikatzeko zailtasun handia. Oso ulermen eta idazmen urriak. • Erantzun oldarkorrak, inhibiziozkoak edo etsipenezkoak ditu eguneroko bizimoduan. • Ez du onartzen ez laguntzarik ez bidelaguntzarik. • Analfabetismo digitala. 	1	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. • Ez dago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. • Teknologia berriak eskuratzeko aukerarik gabe. 	1
<ul style="list-style-type: none"> • Trebetasun sozial eta pertsonal urriak. • Lotuneak eta enpatia ezartzeko zailtasunak. • Komunikazio-hizkuntza ulertzen du, baina ez daki mintzatzen. • Inhibiziozko edo etsipenezko erantzunak, egoerak konplexuak edo estresagarriak direnean. • Teknologia berriak erabiltzeko interesa. 	2	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. • Teknologia berriak eskuratzeko zailtasunak. 	2
<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko trebetasun pertsonalak eta sozialak ezartzen ditu zenbait arlotan eta testuinguru normalizatuetan. • Gutxi-gutxi komunikatzen da komunikazio-hizkuntzan (idazmena eta mintzamenak). Hizkuntza ikasteko interesa. • Laguntza eta bidelaguntza onartzen ditu. Erabakigarritasun urria, egoerak konplexuak edo estresagarriak direnean. • Gutxi-gutxi darabiltza teknologia berriak. Hobetu nahian ikasteko interesa. 	3	<ul style="list-style-type: none"> • Eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen dira. Aitortutako eskubidea. • Eskubideak eskuratzeko prozesuan. Izapidetzan. • Gorabehera nabariak daude praktikan eskuratzeko orduan. • Teknologia berriak tarteka eskuratzeko aukera. 	3
<ul style="list-style-type: none"> • Bidelaguntzaren bidez, zenbait testuingurutan ari da trebetasun sozial eta pertsonalak orokortzen. • Mintzamen-maila ona du komunikazio-hizkuntzan. Elkarrizketa-maila, inprimakiak betetzeko maila. Hizkuntza ikasteko prozesuetan parte hartzen du. • Bere erantzunak eta asaldura emozionalak kontrolatzen ditu. Hobetzeko helburuak zehazten ditu beretzat. Bere prozesuan parte hartzen du. • Teknologia berriak behar beste darabiltza eguneroko bizimodurako. • Beste batzuei oinarrizko laguntza/ bidelaguntza emateko gai da. 	4	<ul style="list-style-type: none"> • Aitortutako eskubidea. • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. • Ez dago gorabehera nabaririk eskuratzeko eta praktikan ezartzeko orduan. • Teknologia berriak ohikotasunez eskuratzeko aukera. 	4
<ul style="list-style-type: none"> • Modu autonomoan, hainbat trebetasun pertsonal ditu, eta ohikotasunez darabiltza zenbait testuingurutan. • Komunikazio-hizkuntzan hitz egin eta idazten du. • Teknologia berriak ondo darabiltza. • Beste batzuei laguntza eskaintzeko gaitasuna (enpatia, entzuten jakitea, bidelaguntza ematea...). • Gizartean onargarriak diren erantzunak, eguneroko arazoan aurrean. 	5	<ul style="list-style-type: none"> • Trebetasun pertsonalen garapenerako laguntza-zerbitzueterako eskubidea aitortu eta eskuratu egiten da. • Erreklamatzeko gaitasuna, behar izanez gero. • Teknologia berriak etengabe eskuratzeko aukera. 	5

AISIAREN DIMENTSIORAKO BALORAZIO-TAULA

BALORAZIORAKO JARRAIBIDEAK

Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsaleko 24. artikuluan aitortzen da atsedenerako eta astialdiaz gozatzeko eskubidea.

Zenbait arau juridikok babesten dute eskubide hori; esate baterako:

- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Ikuskizun Publikoei eta Aisialdiko Jarduerari buruzkoa.
- 8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Komunitatean jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan sartzeko eta jarduteko prozesuari buruzkoa.
- 170/1985 Dekretua, ekainaren 25ekoa (1985-06-29ko EHAA), haurren eta gazteen kanpalekuen, udalekuen, udaleku irekien, auzolanen eta martxa ibiltarien araubidea arautzen duena.

Aisia ohiko betebeharratik eta zereginetatik kanpo dibertsiorako eta jolaserako erabat erabilitako epealdia da. Astialdia, ordea, plazerik sorrarazten ez duten jardueretan erabili daiteke. Bestetik, aisia ez da gelditasunerako erabilitako epealdia, eraginkortasunez ateratzen zaiolako onura.

EGOERA		ESKUBIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Ez du aisiako jarduerarik egiten. • Aisiako jarduera gehienek ondorio kaltegarriak dituzte (arloan pertsonalean eta sozialean). 	1	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. • Ez dago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. • Aisiaren dimentsioan eskubideak eskuratzeko aukerarik gabe (barnekoa). • Bere aisia aukeratzeko gaitasunik gabe. 	1
<ul style="list-style-type: none"> • Aisialdiaren zati handiena jarduera pasiboak egiten ematen du. • Ez du gogobetetasunik aurkitzen egiten dituen aisiako jardueretan (apatia). 	2	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen (egoera irregularra). • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. 	2
<ul style="list-style-type: none"> • Aisiaren jardueraz gozatzen du, baina ez du ez autonomiarik ez askatasunik, modu autonomoan egiteko. • Aisia aktiboko jarduerak egiten ditu unean-unean eta gogobetetasunez. 	3	<ul style="list-style-type: none"> • Eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen dira. Aitortutako eskubidea. • Eskubideak eskuratzeko prozesuan. Izapidetzan. • Gorabehera nabariak daude praktikan eskuratzeko orduan (denborarik edo baliabide ekonomikorik ez edukitzea). 	3
<ul style="list-style-type: none"> • Aisia aktiboko jardueren plangintza egiten du, hasiera ematen die eta garatu egiten ditu, banan-banan eta taldean dituen interesen arabera (hobbyak, zaletasunak...), gogobetetasunez eta lantzean behin. 	4	<ul style="list-style-type: none"> • Aitortutako eskubidea. • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. • Ez dago gorabehera nabaririk eskuratzeko eta praktikan ezartzeko orduan. 	4
<ul style="list-style-type: none"> • Aisia bere eguneroko ohituren parte da erabateko autonomiaz eta ekintza-askatasunaz. • Aisia elkartua, beste batzuentzako sustapena. • Boluntariotzako ekintzak egiten ditu, edo bere inguruko elkarrekin parte hartzen du. 	5	<ul style="list-style-type: none"> • Aisiarako eskubidea aitortu eta eskuratu egiten da. • Erreklamatzeko gaitasuna, behar izanez gero. 	5





HARREMANEN ETA LOTUNE KOMUNITARIOAREN DIMENTSIORAKO BALORAZIO-TAULA

BALORAZIORAKO JARRAIBIDEAK

Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsaleko 20. artikuluan aitortzen da edonorekin elkartzeko dugun askatasunerako eskubidea.

Honako lege hauek aurkitzen ditugu dimentsio honekin lotutako alderdiak arautzen dituen legerian:

- 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa.
- 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzkoa.

Honakoak dira harremanak eta lotune komunitarioak: auzoari, inguruneari edota komunitateari sare moduan eta pertsonentzako erreferentzia egoki moduan eratzeko aukera ematen dieten harreman eta partaidetza-eremu formal eta informal guztiak.

Alde horretatik, erreferentzia formal egoki moduan baloratu daitezke pertsonen ongizatean bidelaguntza ematen eta laguntzen duten eragile egonkor guztiak: lehen mailako arretako osasun-langileak, gizarte-zerbitzuak, enpleguko teknikariak, irakasleak...

Bestetik, hurbilean egunerokotasunarekin lotutako guztiak dira harreman informalak, eta eragin zuzena dute kidezka-sentipenaren eraketan; esate baterako, elkarteetan, kirol-taldeetan edota talde kulturaletan, talde erlijiosoetan parte hartzea. Azken batean, auzoko bizimoduan bateratutako ohiturak dira: eskolako jolastokiak, plaza, tokiko saltegiak...

Horrez gain, hurbilak izan nahiz izan ez, pertsonarentzat konfiantzaren, errespetuaren eta afektuaren iturri diren adiskidetasuneko harreman guztiak dira funtsezkoak.

EGOERA		ESKUBIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Ez dauka sare sozialik. Isolamendua. • Harreman gatazkatsuak edo kaltegarriak. • Gaitzespen soziala eta jazarpena pairatzen ditu. 	1	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. • Ez dago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. 	1
<ul style="list-style-type: none"> • Lotune instituzionala du. • Lantzean behingo harreman sozialak, beste batzuen ekimenez. • Gaitzespen soziala eta jazarpena pairatzen ditu batzuetan. 	2	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. • Ez da partaidetzarako guneetan sartzen, bereizkeriagatik eta ezjakintasunagatik. 	2
<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko harreman sozialen eta lotune afektiboen hasiera edo berreskurapena. • Ohiko harremanak, bere ekimenez. • Unean-unean parte hartzen du harremanak sorrarazten dituzten jardura sozialetan. • Ez dago gaitzespen sozialik, baina badago estigmatizatua izatearen arriskurik (aurreiritzi eta estereotipo sozialen eragina). 	3	<ul style="list-style-type: none"> • Eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen dira. Aitortutako eskubidea. • Eskubideak eskuratzeko prozesuan. Izapidetzan. • Gorabehera nabariak daude praktikan eskuratzeko orduan. • Partaidetza-guneetan sartzen da, baina zailtasunak ditu. Ez dute taldean onartzen, sartzen. 	3
<ul style="list-style-type: none"> • Oro har, taldeko jardueretan parte hartzen du, baita beste batzuekin ere, bere ekimenez. • Familiakoak ez beste lotune afektibo batzuk ezarri ditu. 	4	<ul style="list-style-type: none"> • Aitortutako eskubidea. • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. • Ez dago gorabehera nabaririk eskuratzeko eta praktikan ezartzeko orduan. 	4
<ul style="list-style-type: none"> • Adiskideen taldea dauka. Bertan, elkarrekiko laguntza eman eta jaso egiten du. • Autonomoa da bere harremanetan. • Partaidetza aktiboa eta Lotune komunitarioa. 	5	<ul style="list-style-type: none"> • Eskubidea aitortu eta eskuratu egiten da. • Erreklamatzeko gaitasuna, behar izanez gero. 	5

FAMILIAREN DIMENTSIORAKO BALORAZIO-TAULA

BALORAZIORAKO JARRAIBIDEAK

Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsaleko 12. eta 16. artikuluetan, familiako intimitaterako eskubidea aitortzen da.

Hona hemen dimentsio honetan azaldutako eskubideak babesten dituzten zenbait lege:

- 13/2008 Legea, Familiei Laguntzekoa.

Familiari buruz hitz egiten dugunean, beti-beti abiatu behar gara eskuhartzea gurekin egiten ari den pertsonarekin lortutako adostasunetik. Zuzenean galdetu behar diogu nor den bere familia/nor jotzen duen bere familiazat eta zergatik. Horrela, konturatu egin ahal izango gara elkarbizitzako edota odolkidetasuneko faktoreak ez direla beti "gure familia" nor den zehazten dutenak.

Adingabeen kasuan, dimentsio hau ezinbesteko alderdia da, pertsonari bere integritasunean ulertzeko. Heldu batzuen artean, ordea, baliteke ireki nahi ez duten atala izatea (aldi baterako edo behin betiko). Ezinbestekoa da pertsona bakoitzaren erabakiaren errespetutik abiatzea, lan-plan globala proposatu ahal izatearen. Pertsona batzuentzat, oso mingarria izan daiteke. Garrantzitsua da galderak iragankor egitea, une bakoitzean zein izan daitekeen egokia ikusteko, aldez aurretik sortutako lotunea eta konfiantza kontuan hartuta.

EGOERA		ESKUBIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Ez dauka harremanik familiarekin (ez hemen ez sorterrian). Familiako gatazka larriak. • Tratu txarrak, aldentzeko agindua, utzikeria. • Diagnostikatu gabeko babesgabetasunean dauden adingabeak. • Zaintzeko trebetasunik gabe. • Bere burua zaintzeko autonomiarik gabe. • Kanpoko laguntzarik gabe. 	1	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. • Ez dago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. • Familiari laguntza-zerbitzuak emateko aitortutako eskubiderik gabe (gizarte-zerbitzuak, familiaren Bidelaguntza, familia-terapia, haurtzaindegiak...). 	1
<ul style="list-style-type: none"> • Familiarekin lantzean behin du harremana (hemen eta sorterrian). • Familiako gatazkak ditu behin eta berriro. • Babesgabetasunerako arriskuan edota diagnostikatutako babesgabetasunean dauden adingabeak. • Zaintzeko trebetasun mugatuak ditu. • Bere burua zaintzeko autonomia mugatua du. • Laguntza urriak, sare egonkorrik gabe. 	2	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. 	2
<ul style="list-style-type: none"> • Aldian aldiko harremanak (hemen eta sorterrian). Harreman afektiboen berrasiera. Inplikazio emozionala. • Gatazkak konpontzen hasi da. • Instituzionalizatutako babes-egoeran dauden adingabeak. • Zaintzeko trebetasunak ditu. • Bere burua zaintzeko autonomia du. • Laguntza-sare urria du. 	3	<ul style="list-style-type: none"> • Eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen dira. Aitortutako eskubidea. • Eskubideak eskuratzeko prozesuan. • Gorabehera nabariak daude praktikan eskuratzeko orduan. 	3
<ul style="list-style-type: none"> • Familiarekin sarritan du harremana (hemen eta sorterrian). • Apurka-apurka eskubideak eta betebeharrak hartzen ari da bere gain. Gatazken konponbidea. • Zaintzeko trebetasun pertsonalak ditu. • Bere burua zaintzeko autonomia du. • Laguntza-sare egonkorra. 	4	<ul style="list-style-type: none"> • Aitortutako eskubidea. • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. • Ez dago gorabehera nabaririk eskuratzeko eta praktikan ezartzeko orduan. 	4





<ul style="list-style-type: none"> • Erabat integratuta dago familia-taldean. • Gatazken konponbide egokia. Zaintzeko trebetasun pertsonalak ditu, eta bere burua zaintzeko autonomia dauka. • Laguntzarako eta zainketarako harreman afektibo onak. 	5	<ul style="list-style-type: none"> • Familiari laguntzeko eskubideak aitortu eta eskuratu egiten dira. • Erreklamatzeko gaitasuna, behar izanez gero. 	5
---	---	---	---

OSASUNAREN DIMENTSIORAKO BALORAZIO-TAULA

BALORAZIORAKO JARRAIBIDEAK

Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsaleko 25. artikuluan, ongizaterako eskubidea aitortzen da: elikagaiak, etxebizitza, laguntza medikoa, jantziak eta txirotasunerako oinarrizko beste gizarte-zerbitzu batzuk...

EAE mailan: 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzkoa. Funtsezko tresna da, euskal botere publikoek herritarrekin osasunaren babesarekin eta zainketarekin lotuta dagoen eta hain garrantzitsua den eskubidearen garapenaren eta ezarpenaren inguruan hartzen duten konpromisoa egituratzeko.

Osasunaren Mundu Erakundeak honelaxe azaltzen du zer den osasuna: *“erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera, eta ez bakarrik gaixotasunik ez edukitzea”*.

Beraz, honakoa kontuan hartu beharko da osasuna baloratzean:

- Klinika (fisikoa eta mentala): diagnostiko medikoak, aitortutako desgaitasunak eta mendetasunak, tratamendu mediko terapeutikoak eta parte-hartzaileak egindako jarraipena...
- Funtzionaltasuna: bizimodu autonomo eta independentea eramateko gaitasuna. Ulertzeko, abstraitzeko eta orokortzeko gaitasuna (jarraibideak oro har ezartzen jakitea eta ez bakarrik une zehatz batean emandako aginduaren arabera). Eguneroko bizimoduko autokudeaketa... Esate baterako, diagnostikorik gabeko pertsona aurkitu ahal izango dugu, zailtasunaren autopertzepziorik ez daukana, emandako aginduak ulertzen ez dituenak, datak eta hitzorduak ahaztu edo aldatu egiten dituenak, ulertzen ez duenez bere prozesua eteten duena...
- Autopertzepzioa: ongizate subjektiboaren balorazioa, bizi-egoeraren eta osasun-egoeraren inguruko gogobetetasuna.

EGOERA		ESKUBIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Diagnostikorik gabeko eta kontrol medikorik gabeko gaixotasun larriak. • Ez darabil osasun-zerbitzurik. • Ez du oinarrizko osasun-ohiturarik. • Ez du gaixotasunaren inguruko kontzientziarik, ez autozainketarik. 	1	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. • Ez dago eskubideen subjektua izatearen kontzientziarik. • Ez dago osasun-arreta eskuratzeko eskubide aitorturik. 	1
<ul style="list-style-type: none"> • Diagnostikatutako gaixotasun larriak dituen arren, ez du tratamendurik egiten. • Lantzean behin zaintzen ditu osasuna eta higiena. • Lantzean behin dabilta osasun-zerbitzuak. • Ia-ia ez du gaixotasunaren inguruko kontzientziarik, eta bere autozainketa ez da ona. 	2	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen. • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. 	2
<ul style="list-style-type: none"> • Diagnostikatutako gaixotasun larriak ditu, eta tratamendua egiten du laguntzapean eta ikuskaritzapean. • Osasun eta higiene arloko ohiturak eskuratzeko prozesuan dago. • Behar dituenean darabiltza osasun-zerbitzuak. • Jarraipen hurbilaz zaintzen du bere burua. 	3	<ul style="list-style-type: none"> • Eskubidea eskuratzeko aukera ematen duten eskakizunak betetzen dira. Aitortutako eskubidea. • Eskubideak eskuratzeko prozesuan. Izapidetzan. • Gorabehera nabariak daude praktikan eskuratzeko orduan. 	3

<ul style="list-style-type: none"> • Diagnostikatutako eta autonomiaz tratatutako gaixotasunak. • Era egokian darabiltza osasun-zerbitzuak. • Osasun eta higiene arloko ohiturak ditu. 	4	<ul style="list-style-type: none"> • Aitortutako eskubidea. • Badago eskubideen subjektua izatearen kontzientzia. • Ez dago gorabehera nabaririk eskuratzeko eta praktikan ezartzeko orduan. 	4
<ul style="list-style-type: none"> • Ez du gaixotasun aipagarriarik. • Erabat ezarrita ditu osasun eta higiene arloko ohiturak. • Ohitura osasungarriak. 	5	<ul style="list-style-type: none"> • Osasunaren arretarako eskubidea aitortu eta eskuratu egiten da. • Erreklamatzeko gaitasuna, behar izanez gero. 	5

ITXAROPENAREN DIMENTSIORAKO BALORAZIO-TAULA

BALORAZIORAKO JARRAIBIDEAK

Itxaropena aldarte baikorra da, eta, horren bidez, norberak nahi duena edo helburu duena lortzerik badagoela uste dugu.

Itxaropena baloratzean, hiru faktore hartu ahal izango ditugu kontuan: pertsonak bere aurreikuspenen inguruan dituen sentimenduak (gogo bizia, konfiantza, zoriontasuna...; edo, bestela, ziurgabetasuna, mesfidantza, ikara...). Motibazioa, hau da, helburu edo lorpen pertsonala erdietsi arte amore ez emateko eta aurrera jarraitzeko gaitasuna. Horrez gain, etorkizuneko aurreikuspenen inguruko pentsamenduak (etorkizuna irudikatzea, nola ikusten dudan...).

“Giza eskubideekin gizakien premiekin dute zerikusia, baina ez dira haiekin nahasten. Alde “gizatiarrak” giza premia guztiekin (elikagaiak, ura, etxebizitza) eta giza gaitasun guztiekin (aukeratzea, adieraztea, parte hartzea) du zerikusia, pertsona guztientzat dira, haien sorterrria edo haien desberdintasun kulturalak edonolakoak direla ere, eta pertsonaren duintasunarekin daude lotuta. Premia edota gaitasun horiek mehatxupean daudenean, haiek babesteko mekanismoak ezartzen dira, eta, eskubide bihurtzen direnez, arau juridikoak sortzen dira. Horrez gain, Estatuak arau hori betearazteko erantzukizuna du, eta behar besteko mekanismoak sortzen dira, eskubide horren urraketa era juridikoan eskatzeko eta ez-betearazpena zigortzeko”. (Paloma García Varela eta Sonia Olea Ferreras, “Documentación Social”).

Dimentsio hauek eskubide zehatz batekin lotutan ez badaude ere, zenbait eskubideren eta askatasunen bidez daude araututa; esate baterako, nortasunaren garapen askea, eta printzipio zein balio juridikoak dituzte inspirazio-iturri.

EGOERA	
<ul style="list-style-type: none"> • Ez du orainerako edo etorkizunerako aurreikuspenik. • Ez dago gustura bere bizi-egoerarekin. • Ez dauka aldatzeko motibaziorik. 	1
<ul style="list-style-type: none"> • Epe laburrerako aurreikuspen gutxi edo urriak. • Ez dago gustura bere bizi-egoerarekin. • Aldatzeko gurariaren inguruko zalantzak. 	2
<ul style="list-style-type: none"> • Etorkizunerako aurreikuspen batzuk epe ertainari begira. • Bizi-egoera hobetzeko prozesuan. • Aldaketak egiteko eta bere bizimodua hobetzeko motibazioa dauka. 	3
<ul style="list-style-type: none"> • Epe ertain edo epe luzerako aurreikuspenak. • Bere bizi-egoeraren inguruko gogobetetasun moderatua. • Bere inguruko gaien edo gai sozialen inguruko itxaropenen bat dauka. • Aldatzeko eta hobera egiteko ekintzak egiten hasi da. 	4
<ul style="list-style-type: none"> • Epe luzerako aurreikuspen handiak. • Gustura dago bere bizi-egoerarekin. • Badu bere inguruko gaien edo gai sozialen inguruko itxaropenik. • Aldatzeko ekintzak, era aktiboan, motibazioz eta ilusioz bititako hobekuntzak. 	5





ESPIRITUALTASUN/TRANZENDENTZIAREN DIMENTSIORAKO BALORAZIO-TAULA

BALORAZIORAKO JARRAIBIDEAK

Julio Gómezen definizio hau hartzen dugu abiapuntutzat: *“espiritualtasuna gure gizatasunaren alderdi intrintseko eta dinamikoa da, azken zentzua, asmoarena, transzendentziarena bilatzera garamatza eta geure izatearekin, familiarekin, besteekin, komunitatearekin, gizartearekin, naturarekin eta adierazgarria zein sakratua denarekin dugun harremanaren bidez bizi dugu. Espiritualtasuna balioen, tradizioen eta jardueren bitartez adierazten da”.*

Dimentsio espiritualak ez du beti zerikusirik alderdi erlijiosoekin edo sinesmen konfesionalarekin, sentipen sakonekin zein bizitzaren esangurarekin lotutako guztia ere hartzen duelako kontuan eta zerikusia handiagoa duelako intuiziozko pentsamenduekin pentsamendu arrazionalarekin baino.

Dimentsio hau sortutako lotunearen bidez bakarrik landu edo arakatu daiteke, eta zabalik egon beharra dago, beste pertsona bizi-pena ikusteko eta barruko mundu hori behatzeko, begiek ikusten dutena baino haratago doazen esangurez betetako dagoelako.

Dimentsio honetako laguntasunean, pertsonaren hazkuntza zein heldutasuna jorratzen dira, eta, prozesu horri esker, bere buruarekin, beste pertsonarekin eta transzendentia denarekin (natura, gogoartea...) dago harremanetan.

Hona hemen dimentsio hau lantzeko orduan kontuan hartu beharrekoak: beti ez da erraza *elkarrizketa batean dimentsio honi buruzko galderak egitea. Aurretiko lotunea ezarri beharra dago. Osasun mentaleko arazoak dituztenek oztopotzat jotzean haien hobekuntzan laguntzen ez duen bizi-pena eta adierazpide erlijiosoa eduki dezakete.*

“Giza eskubideekin gizakien premiekin dute zerikusia, baina ez dira haiekin nahasten. Alde “gizatiarrak” giza premia guztiekin (elikagaiak, ura, etxebizitza) eta giza gaitasun guztiekin (aukeratzea, adieraztea, parte hartzea) du zerikusia, pertsona guztientzat dira, haien sorterrria edo haien desberdintasun kulturalak edonolakoak direla ere, eta pertsonaren duintasunarekin daude lotuta. Premia edota gaitasun horiek mehatxupean daudenean, haiek babesteko mekanismoak ezartzen dira, eta, eskubide bihurtzen direnez, arau juridikoak sortzen dira. Horrez gain, Estatuak arau hori betearazteko erantzukizuna du, eta behar besteko mekanismoak sortzen dira, eskubide horren urraketa era juridikoan eskatzeko eta ez-betearazpena zigortzeko”. (Paloma García Varela eta Sonia Olea Ferreras, “Documentación Social”).

Dimentsio hauek eskubide zehatz batekin lotuta ez badaude ere, zenbait eskubideren eta askatasunen bidez daude araututa; esate baterako, nortasunaren garapen askea, eta printzipio zein balio juridikoak dituzte inspirazio-iturri.

EGOERA	
<ul style="list-style-type: none"> Sinesmen nabaririk gabe. Gatazka edo kaltea sorrarazten duten sinesmen nabariak. Bizi-zentzurik gabe. 	1
<ul style="list-style-type: none"> Ez du sinesmen nabaririk, baina iraganean eduki ditu, eta baliteke haiekin adiskidetzeara. Ez du bizi-zentzu nabaririk, galdu egin duelako. 	2
<ul style="list-style-type: none"> Sinesmen nabariaren edo sentipen espiritualaren inguruko kezka. Bizi-zentzua antzematen du, eta zeren aurrean, noiz, non azaltzen du. 	3
<ul style="list-style-type: none"> Sinesmen nabariak ditu, baina ez dute eraginik ez pentsamenduetan ez bizimoduetan. Eutsi egiten dion bizi-zentzua aitortzen du. 	4
<ul style="list-style-type: none"> Sinesmen nabari sendo-sendoa du, eta badu eraginik bere pentsamenduetan nahiz bizimoduan. Zentzu-iturri nagusitzat jotzen du espiritualtasuna. Bizi-zentzuaren iturria eta gida azaltzen ditu. 	5

Nola egin balorazioa?

Giltzarri orokor moduan, oso garrantzitsua da pertsona bakoitzak dimentsio bakoitzean daukan bizi-pena kontuan hartzea, beretzat nor den bere familia, beretzat zer den aisia...

Bidelaguntza ematen duen taldeak egingo du balorazioa (kasuen mahaia, Harrerarako taldea...), eta, horretarako, **baloraziorako eskema zein gidaliburua** erabiliko ditu, baita **BIM balorazioaren fitxa** ere.

Praktikan, ahal dela, balorazioa taldean egitea da gomendagarriena, behar den informazio guztia eskura edukitzeko. Eskuragarri ditugun agiri idatziak ere izango ditugu eskura.

Lana taldean garatzen bada, honako zeregin hauek zehaztu beharko dira hasieran:

- Pertsona batek SICCE-MIS aplikazioa erabiliko du, kasua berrikusten den bitartean. Pertsona horrek berrikusi egin beharko du aipatzen den informazio guztia behar bezala erregistratuta dagoela eta sortzen den informazio berria ere sisteman erregistratuta geratzen dela.
- Beste pertsona batek taldeari aurkeztuko dio kasua: aurkezpena egingo du, eta beharrezko agiriak eramango ditu.

Erkaketarako talderik ez badago, bidelaguntza ematen duenak prozesu berbera egin beharko luke, eta, ahal denean, ikuskapena eskatu beharko luke.

Egoera pertsonala baloratzeko datuen kudeaketa

SICCE-MIS gure erreferentziako tresna da, balorazioen eta horien ondorioz laguntasunerako sortutako planen erregistroa zein jarraipena egiteko.

Taldean kasua aurkezten hasten denetik, pertsonaren fitxa SICCE-MIS aplikazioan egongo da eskuragarri, eta honakoa egin beharko du sistema darabilenak:

- Unean-unean garrantzizkoa den informazioa aurkeztuko du.
- Datuen dauden erroreak edo hutsuneak antzemango ditu.
- Aurkezten den informazio berria erregistratuko du.

Balorazioan lortzen diren puntuazioak SICCE-MIS aplikazioan grabatuko dira, ibilbideen irtegunean, eskuhartzearen atalaren barruan. (Informazioaren kudeaketari buruzko eranskina).

Balorazioko puntuazioak diagnostikoetarako SICCE-MIS tresnan erregistratzean, hurrengo bezalako grafikoak lortuko ditugu, eta, haiei esker, begirada batean edukiko dugu pertsonaren unearen ulerkuntza integrala. Bidelaguntzaren jarraipenean aurrera egiten eta egoeraren balorazioak egiten jarraitu ahala, pertsonak prozesuan nola egiten duen aurrera ikusi ahal izango dugu. SICCE-MISeko ibilbideen sistemak bilakaeraren grafikoak eskainiko dizkigunez, pertsonarekin garatutako lan-plana apurka-apurka eguneratzen lagunduko digute.

Egoera pertsonalaren ikuspegi integrala eskaintzen duen lehenengo balorazioaren grafikoaren adibidea (SICCE-MIS)



Ohar garrantzitsua: KUANTIFIKAZIOAREN ZENTZUA.

Pertsonaren egoera kuantifikatzean honelako ereduak ezartzen denean, baliteke emaitza bat, zenbaki bat lortzen larregi saiatzea eta, horren ondorioz, xede nagusia albo batera geratzea, hau da, **pertsonaren egoera ulertzea** eta hobekuntzarako **alternatibak proposatzea**.

Puntuazioak erreferentziatzen hartu behar ditugu, baina ez dira prozesuaren justifikazio





nagusia, egiten ditugun gainerako zereginak baliozkotzeko eta abian jarritako prozesuen emaitzak ukigarriak izan direla berresteko laguntza baizik.

Balorazio prozesua amaitzean “zenbaki hutsa” ematearekin konformatzea arriskutsua da. Egoeraren inguruan dugun ulerkuntzaren adierazgarri baino ez da zenbakia, eta erabilgarria izango den laguntza baino ez da, egindako ahalegina biltzeko eta balioa emateko eta prozesuan erdietsitako aurrerakuntzak agerian jartzeko, baina ezin dugu inolaz ere onartu balorazioaren benetako helburua ezkutatu dezan.

5.2.2. BANAKAKO PLANA

Adostasunen eta helburuen proposamena

Lehentasunak (5')

Balorazioa egindakoan, kasuan kasuko epealdirako lanaren lehentasunak zehaztuko dira. Kontuan hartu beharra dago lehentasun horiekin bat datozen eta nahikoa laburra den epealdian (6 hilabeteen, gehienez ere) lortzeko modukoak diren helburuak zehaztu behar direla.

Talde osoak **ZER ARLO** dauden “**eraginpean**” zehaztuko du, hau da, prozesuko une honetan zer arlo diren garrantzitsuak eta zer arlori buruz daukagun informazioa eta zeini buruz ez (baina susmatzen dugu funtsezkoak direla egoera ulertzeko eta bidelaguntza eman ahal izatearen).

Irizpideak

Honakoak izango dira lehenetsi beharreko funtsezko irizpideak:

- **Bidelaguntza jasotzen duenaren iritzia** eta zereginaren aurrean duen jarrera. Edonola ere, azkenean zehazten diren helburuak pertsonarekin **ADOSTU** beharko dira **BETI**.
- Bizitza-zikloko unea (gurariak, lehentasunak eta gaitasunak).
- **Aukera** (beste aukera batzuk ireki ahal izatearen funtsezkoak direnez, ebatzi egin behar diren gai giltzarriak).
- Pertsonen egoera **hobetzeko ahalmena**.
- **Arrakastarako aukera**, besteak beste.

Pertsona/familiari bidelaguntza ematean (eskuhartzea), litekeena da beste arlo batzuk ere kontuan hartzea edo sartzea, hasierakoez gain. Horixe egingo dugu, pertsona/familiaren informazio gehiago edukiko dugulako: egoera, jokabidea, jardunbidea, beste une batzuetan edo antzeko beste egoera batzuetan erabili ahal izan dituzten estrategiak, hau da, familiak zer trebetasun eta baliabide “jarri dituen jokoan”, apurka-apurka antzematen ditugun beste premia batzuk, betiere, oraindik ere arakatu gabe dauden arloei buruzkoak badira, lagundutako pertsonak eskatzen dituen laguntza edo eskaera berriak...

Banakako planaren funtsezko edukia **PROPOSAMEN** moduan aurkeztuko da taldearen saioaren amaieran. Lehentasunak zehaztuta geratuko dira, eta **PROPOSATUTAKO HELBURUAK** erregistratuko dira, baita taldearen edo laguntasun-emaielen zereginak ere, eragilearen helburuen atalean (informazioaren kudeaketari buruzko eranskina ikusi).

Nolanahi ere, lan-planaren PROPOSAMEN horretatik azken BANAKAKO PLANERA igarotzeko, pertsonaren ekarpenak, lagundutako pertsonaren **onarpena** eta proposamenarekin duen **adostasuna** ere erantsi beharko dira.

Beraz, lagundutako pertsonarekin egindako hurrengo topaketan, planaren proposamena aurkeztu eta **banakako plana egingo dugu**, honako guztia kontuan hartuta: pertsonarekin zerbitzuan bertan landutako eta adostutako helburuak, garatu beharreko jarduerak, helburu horietarantz aurrera egiteko bere esku jartzen diren baliabideak eta haien betearazpena baloratuko diren epeak.

Banakako Planak adostutako lehentasunak eta lagundutako pertsonarentzat nahiz prozesuan bidelaguntza ematen dion eragilearentzako helburuak zehazteko orduan aurretiaz aipatutako

irizpideak ditu oinarri: biek urrats bakoitzean euren gain hartutako konpromisoen erregistroa eta jarraipena egingo dituzte.

Epe laburrean betetzeko moduko helburu zehatzak ezarriko dira, ulerkuntza zein konpromisoa bermatzeko eta, ahal dela, prozesuko urrats bakoitzak ahalik eta arrakasta handiena izango duela ziurtatzeko.

Beharrezkoa izanez gero, adostasunak azaltzen dituen agiri bakuna prestatu eta sinatu egingo da.

Epe ertainerako lerro handiak bat datoz diagnostikoaren eskeman agertzen diren arloetako hobekuntzarekin, eta haien ebaluazioa zein jarraipena egingo dira aldian-aldian, prozesuaren aurrerakuntzen ikuspegi orokorragoa edukitzeko.

5.2.3. JARDUEREN GARAPENA

Bidelaguntasun Integralerako Metodologiak (BIM) pertsonari modu integralean begiraten laguntzen digu, dimentsio pertsonal guztiak kontuan hartuta. Horretarako, banakako arlorantz ez ezik, arlo erkiderantz eta egiturazko arlorantz ere zuzentzen dugu begirada. Pertsonaren egoera premien batura moduan barik eskubideen urraketa moduan jorratzen dugunez, gure bidelaguntza jasotzen duen pertsonarengandik haratago zabaldu "behar" dugu ikuspegia.

Ikuspegi berri honen arabera, orain pertsonaren prozesua izango da garrantzizkoena, hau da, jarduerak erantzuna emateko zehaztu duen helburua eta ez jarduera bera.

Egoeraren diagnostikoa daukagu abiapuntu, eta pertsonarekin diseinatzen dugun lan-plana proposatzen dugu. Plan hori abian jartzeko, zenbait helburu lortu nahi ditugu eskaintzen ditugun erantzun guztien bitartez, kasuan-kasuan pertsonaren zer dimentsio izango dugun xede zehaztu ostean. Hartara, honelaxe egokitzen ditugu geure erantzunak; esate baterako:

- **Babesaren dimentsioa helburu duten erantzunak:**
 - o Eskubideei buruzko informazioa ematea eta non erreklamatu azaltzea (gizarte-zerbitzuen sistema publikoa, etxebizitza, justizia...).
 - o Berezko laguntza subsidiarioak: laguntza ekonomikoak, Kooperako baleak, etxebizitza, zerbitzu juridikoa...
 - o Arlo komunitario eta egiturazkoa helburu duten erantzunak: kanpainak, mobilizazioak, eragin politikorako prozesuak, sare-lana.
- **Harremanen dimentsioa helburu duten erantzunak:**
 - o Jardueraren helburua lotuneak sortzea, laguntzarako sare informalak sortzea denean: PSPko harreman-tailerrak, zentro erkideetako jarduera bateratuak, etxez etxeko bidelaguntza, egoitzaz egoitzako bidelaguntza...
 - o Gurasoen trebetasunak hobetzea helburu dutenak: gurasoen eskolak...
 - o Inguruan dimentsio honi erantzuna emateko dauden beste baliabide batzuei buruzko informazioa ematea.
- **Sustapenaren dimentsioa helburu duten erantzunak:**
 - o Haien helburua pertsona intentsitate handiagoko edo txikiagoko mailetan prestatzea denean: norberaren trebetasunak hobetzeko tailerrak (sukaldaritza, joskintza...), gizarte eta lan arloko tailerrak, enplegurako prestakuntza, gizarte eta eskola arloko laguntza...
 - o Arlo komunitario eta egiturazkoa helburu duten erantzunak: kanpainak, mobilizazioak, eragin politikorako prozesuak.
 - o Aisiarekin lotutakoak: lan-eskubideei buruzko informazioa (atsedena), auzo/herriko jardueri zein elkarteei, irtenaldiei, jaiei... buruzko informazioa.
 - o Inguruan dimentsio honi erantzuna emateko dauden beste baliabide batzuei buruzko informazioa ematea.
- **Osasunaren dimentsioa helburu duten erantzunak:**
 - o Eskubideei buruzko informazioa ematea eta non erreklamatu azaltzea (osasun publikoko sistema).
 - o Zerbitzu psikologikoa.
 - o Berezko laguntza subsidiarioak: sendagaietarako laguntza ekonomikoak.





- o Zaintzaileentzako laguntza: Esku onetan.
- o Arlo erkide eta egiturazkoa helburu duten erantzunak: kanpainak, mobilizazioak, eragin politikorako prozesuak.
- **Respuestas orientadas a la dimensión del sentido vital:**
 - o Entzuteko guneak.
 - o Erretiroak.
 - o Gurtzarako guneei buruzko informazioa.

Garrantzitsua da guk geuk argi edukitzea zer dimentsio pertsonaletan eta bazterketaren zer faktore sozialetan eragin nahi dugun geure jardueraren bidez eta zer neurritan ari garen asmatzen geure jarduera helburuetarantz bideratzean, beharrezkoak diren aldaketak ezarri ahal izatearen. Halaber, garrantzitsua da gizarte-bazterketaren faktore edo dimentsio batzuen inguruan erantzun behar dugun berrikustea, horretarako inolako erantzunik edo jarduerarik egituratuta ez daukagunean. Halakoetan, abian nola jarri ikusi beharko dugu, eta erabaki egin beharko dugu ekintza-lerroa izango den pertsonentzako bidelaguntzaren mailan, sentsibilizazioaren eta ekintza erkidearen mailan edo eragin politikoaren mailan (edo zenbait mailan, aldi berean).

Bidelaguntasun Integralerako Metodologiaren bidez (BIM), jakintza daukagu, eta aliantzak sortzen ditugu gure auzoan, gure herrian lanean dauden baliabideekin. Ekintza interesgarria da gure ingurune baliabideei buruzko gidaliburua egitea, haiengana hurbildu ahal izatea, guk haiek ezagutzea eta haiek gu ezagutzea. Horri esker, pertsonak modu egokian eta haien premien arabera bideratu ahal izango ditugu, koordinatutako edo partekatutako bidelaguntzak sortu ahal izango ditugu, errealtatearen azterketa bateratuarako estrategiak sortu ahal izango ditugu eta, beharrezkoa izanez gero, proposamen bateratuak egin ahal izango ditugu, geure inguruko premiei erantzunak emateko.

5.2.4. PROZESUKO BIDELAGUNTZA

Banakako Plana ezarritakoan, aldi berean elkarriketak egiten dira, adostutako ekintzen hedapenari babesa emateko eta indartzeko. Era berean, honako bidez ere suspertzen da prozesu pertsonala: entzunaldi aktiboa, euspena, laguntza emozionala, erkaketa, erabakiak hartzeko bidelaguntza...

Fase honetan, pertsonarekin baloratzen da hartutako konpromisoak eta helburuak bete diren, eta planaren egokitzapenak nahiz urrats berriak adosten dira apurka-apurka, hobekuntzarako eta aktibaziorako dinamikari eusteko.

Prozesuko bidelaguntzaren ondorioz, ez da balorazio berririk egin behar, harik eta lan-taldeak halaxe uste duen arte edo, hala badagokio, zehaztutako epealdiaren gehieneko iraupenera iritsi arte (6 hilabete, gehien jota).

Prozesuko une horretara heldutakoan, jarraipenaren balorazioa egingo da, Banakako Plana eguneratuko da eta aurretiko balorazioa zein plana **ITXIKO** dira.

Taldean egiten den bidelaguntza

Bidelaguntza Integralerako Metodologiak taldean egiten den bidelaguntzaz hitz egiten digu. Prozesuetan bidelaguntza ematen dugunok proiektuaren esparruan egiten dugu, lan-talde batean, eta, bertan, dena kontrastatu eta trebatu ere egiten gara.


Seguruenera, begirada integrala geure laguntasunean ezartzen dugun neurrian, pertsonak proiektu batean baino gehiagotan parte hartuko dute (Caritasen edo beste erakunde batean). Hori dela eta, beharrezkoa izango da balorazioa eta lan-planaren proposamena taldean kontrastatzea eta eratzea, bidelaguntzan parte hartzen duten eragile guztiak. Taldeko kideak boluntarioak direnean, profesionalen laguntza jasoko dute aldi berean, prozesu osoan babesa eta orientazioa emateko.

Lanerako aukerak erakunde bakoitzaren antolakuntzaren arabera egokitu beharko dira, bertako gainerako lan-guneei behar bezala bat datozela ziurtatu ahal izatearen. Gure Caritasen, "Eskuhartzearako Mahaia" izeneko eremuak zehaztu dira. (Eranskina).

Jarraipenaren balorazioa

Lantzean behin, nahiz eta lagundutako pertsonaren erritmoen eta bizi-zikloaren arabera nekez zenbatetsi daitekeen, bere egoeraren balorazio berria egingo da. Prozesuko laguntasunetik eta epe laburrerako nahiz egunez eguneko helburuetatik haratago, zerbitzuaren helburu moduan lortu nahi ditugun hobekuntzetan oinarritutako epe ertainerako ikuspegiari eusten ahaleginduko gara. Aldian-aldian ebaluatuz gero, gaur egungo egoera kontrastatuko dugu aurrekoekin, lorpenak antzeman ahal izatearen (grafikoa ikusi).

Egoera pertsonalaren ikuspegi integrala eskaintzen duen jarraipenaren balorazioen grafikoaren adibidea (SICCE-MIS)



Alderdi batzuetan, aurrerakuntzak egongo dira; eta, beste batzuetan, geldialdiak edo berriz erortzeak. Horren guztiaren ondorioz, prozesu pertsonaleko une zehatzarekin bat datozen lehenetsun berriak eta helburu berriak proposatu beharko ditugu berriro.

Praktikan, jarraipenaren balorazio honetan ere ezarriko dira hasierako balorazioan bezalako irizpideak, eta laguntasunerako prozesuko beste ziklo bat hasiko da.

5.2.5. BIDELAGUNTZA PROZESUAREN AMAIERA

Pertsona bakoitzaren prozesuaren iraupena ebaluatutako abiapuntuko egoeraren, prozesuko helburuen eta pertsonaren bizi-inguruabarren arabera izango denez, ez da batere esanguratsua prozesuaren iraupenaren inguruan zenbatetsi dezakegun edozein aurreikuspen.

Edonola ere, zenbait inguruabarregatik amaitu ahal izango da:

1. **Alttagatik irteera:** alta hezigarria izango dugu hizpide, pertsona bere prozesuaren amaierara gogobetetasunez iritsi denean eta baliabidetik irten eta beste baliabide baterantz edo bizitza autonomorantz doanean.
2. **Borondatezko irteera:** borondatezko irteera dugu hizpide, lagundutako pertsonak askatasunez erabakitzen duenean baliabidetik alde egitea, nahiz eta talde profesionalaren ustez prozesua amaitu barik dagoen.
3. **Bertan jarraitzeko irizpideak ez betetzeagatik irteera:**
 - Aldi batean, zerbitzuan sartzeko irizpideren bat betetzen ez bada, zerbitzua etengo da. Etenik gabe, zerbitzuan sartzeko irizpideren bat betetzen ez bada, zerbitzua amaituko da.
 - Zentroko elkarbizitzari buruzko arauak behin eta berriro betetzen ez badira, pertsona behin betiko kanporatuko dute bertatik.

Prozesuaren amaieran, egoeraren berri emango da amaierako txostenaren bidez, eta amaierako egoeraren erregistroa ere egingo da baloraziorako tresnan. Horrela, behar bezala jasota geratuko da zein den dimentsio bakoitzeko helburuen betearazpen-egoera eta banakako programazioan abian leudekeen ekintzen garapen-maila.





Bibliografia

CARITAS BIZKAIA

- (2009) "Krisiaren Ondorioen kontrako Plana".
- (2009) "Modelo de Acción Social" "Gizarte Ekintzarako Eredua"
- (2010): "Informe Trianual. Hirurteko Txostena".
- (2012): "Eskuhartzea-arloetan oinarritutako egoeraren azterketa. Ondorioak". Barruko lan-agiria.
- (2015): "2018-2021 aldirako Plan Estrategikoa".
- (2015): Behatokia: "Ziurgabetasunaren eta ezegonkortasunaren kiribila. Familiek zaugarritasun sozial kronikoan dituzten bizi-baldintzak".
- (2016) "Caritas Konfederaleko Giza Eskubideen Esparru Agiriaren Laburpena". Lan-agiria.
- (2018) "Boluntarioei Laguntzeko Eredua".

ESPAINIAKO CARITAS KONFEDERALA

- (2009): "Marco de Intervención con personas en grave situación de exclusión social". Colección Reflexiones y Marcos de Acción, 2. zk., Madril.
- (2016): "La persona como centro y Enfoque estructural del sinhogarismo". Etxegabekoen Estrategia Konfederala. Eskubideen begirada (lan-taldea).
- (2019) «Los Derechos Humanos en nuestra comunidad». Giza Eskubideen Material Pedagogikoa.
- (2022) PALOMA GARCÍA VARELA eta SONIA OLEA FERRERAS, Agiri soziala: "Enfoque de Derechos Humanos en la intervención social" (I. zatia) <https://documentacion-social.es/contenidos/a-fondo/enfoque-de-derechos-humanos-en-la-intervencion-social-parte-i/>

FOESSA FUNDAZIOA

- (2007) LAPARRA, M., PÉREZ, B. (koord.) "Procesos de exclusión e itinerarios de inserción. La acción de Caritas en el espacio de la exclusión, nuevos retos para la intervención social", Madril.
- (2008) RENES, V. (koord.) VI Informe sobre exclusión y desarrollo social en España. 3.3. kapitulua: "Un sistema de indicadores que permita identificar a las personas excluidas y cuantificar las dimensiones de los procesos de exclusión" (207.-209. or.), Madril.
- (2011) RENES, V., LORENZO, F. "La acción frente a la pobreza infantil. Informe final", Madril.
- (2014) LORENZO, F. (koord.) VII Informe sobre exclusión y desarrollo social en España. (EINSeren emaitzak Euskadirako), Madril.
- (2016) FLORES MARTOS, R. (koord.) "La transmisión intergeneracional de la pobreza: factores, procesos y propuestas para la intervención", Madril.

BESTE ERREFERENTZIA BATZUK

- (1997) CASTEL, R. "La metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del salariado". Paidós, Buenos Aires.
- (2001) ZOHAR, D. eta MARSHALL, I. "Inteligencia Espiritual". Plaza y Janés. Bartzelona.
- (2003) MUÑOZ, M. VÁZQUEZ, C. eta VÁZQUEZ, J.J. "Los límites de la exclusión". Caja Madrid, Madril.
- (2006): GARCÍA ROCA, J. "Relatos, metáforas y dilemas para transformar las exclusiones" in VIDAL FERNÁNDEZ, F. (zuz.), V Informe FUEM de políticas sociales: La exclusión social y el estado del bienestar en España, FUEM, Madril.
- (2007) LAPARRA, M., PÉREZ, B. (koord.), (2007): "Procesos de exclusión e itinerarios de inserción. La acción de Caritas en el espacio de la exclusión, nuevos retos para la intervención social". FOESSA. Madril.
- (2007): PAUGAM, S. "Las formas elementales de la pobreza". Alianza Editorial, Madril.
- (2010): EAPN "Guía metodológica de la participación social de las personas en situación de pobreza y exclusión social". EAPN España, Madril.
- (2013): DAVIA, M.A, LEGAZPE, N. "Transmisión intergeneracional de la pobreza en España: una primera aproximación con la Encuesta de Condiciones de Vida." Santander, Economía Publikoko XXII. Topaketa. Ciudad Real, Gaztela – Mantxako Unibertsitatea.
- (2017): GOMEZ, J. "Sobre la espiritualidad y el sufrimiento" (pdf) in www.edad-vida.org







Caritas
Bizkaia

www.caritasbi.org

